

**ERREGELAMENDU  
ORGANIKOA**



## ERREGELAMENDU ORGANIKOA

### AURKIBIDEA

|                |  |    |
|----------------|--|----|
|                | ATARIKO TITULUA .....  | 5  |
| I. TITULUA     | UDALBATZA .....  | 7  |
| I. KAPITULUA   | UDALBATZAREN OSAKETA.....  | 7  |
| II. KAPITULUA  | UDALBATZAKO KIDEEN AGINTALDIA .....                                | 7  |
| III. KAPITULUA | UDALBATZA ERATZEA ETA ALKATEA HAUTATZEA.....                       | 8  |
| II. TITULUA    | ORGANOAK ETA HAIEN FUNTZIONAMENDUA .....                           | 10 |
| I. KAPITULUA   | ORGANOAK OROKORREAN .....  | 10 |
| II. KAPITULUA  | ALKATEA.....   | 10 |
| III. KAPITULUA | UDALBATZARRA .....   | 16 |
| 1. atala       | Udalbatzaren eskurantzak eta udalbatzako kideen parte hartzea..... | 16 |
| 2. atala       | Bilkurak.....  | 21 |
|                | 1. azpiatala. Motak, deialdia eta eratzea.....                     | 21 |
|                | 2. azpiatala. Eztabaida eta bozketa.....                           | 26 |
|                | 3. azpiatala. Bilkuretan esan-eginak.....                          | 28 |
| 3. atala       | Aktak .....  | 32 |
| IV. KAPITULUA  | TOKIKO GOBERNU BATZARRA.....                                       | 33 |
| V. KAPITULUA   | INFORMAZIO-BATZORDEAK .....  | 34 |
| VI. KAPITULUA  | KONTUEN BATZORDE BEREZIA .....                                     | 37 |
| VII. KAPITULUA | BOZERAMAILEEN BATZORDEA .....                                      | 38 |
| III. TITULUA   | XEDAPEN OROKORRAK .....  | 39 |
| I. KAPITULUA   | OROKORRAK .....  | 39 |
| II. KAPITULUA  | EUSKARAREN ERABILERA.....  | 40 |

|                |   |    |
|----------------|---|----|
| III. KAPITULUA | AGIRIAK.....  | 41 |
| 1. atala       | Egintzen konstantzia.....                             | 41 |
| IV. KAPITULUA  | ERREGELAMENDUAK EGITEKO AHALMENA.....                 | 42 |
| V. KAPITULUA   | ESKURANTZAK ESKUORDETZAN EMATEA.....                  | 44 |
| IV. TITULUA    | UDALBATZAKO KIDEEN ETA UDAL TALDEEN<br>ESTATUTUA..... | 45 |
| I. KAPITULUA   | ZINEGOTZI IZAERA ESKURATU ETA GALTZEA.....            | 45 |
| II. KAPITULUA  | TALDE POLITIKOAK .....                                | 48 |
| III. KAPITULUA | BATERAEZINTASUN ARRAZOIAK ETA ONDAREA AITORTZEA ..... | 50 |
| IV. KAPITULUA  | UDALBATZAKO KIDEEN BETEBEHAR ETA ESKUBIDEAK.. .....   | 51 |

## ERREGELAMENDU ORGANIKOA

### ATARIKO TITULUA

#### 1. artikulua.- Egoitza

Zarauzko udalerrriak bere burutasuna Zarautzen du, eta bertan dago bere udaletxea.

#### 2. artikulua.- Hizkuntza ofizialak

1.- Euskara, Euskadiren berezko hizkuntza dena, eta gaztelania dira udal administrazioaren hizkuntza ofizialak.

2.- Udal agintek euskara erabiltzeko eskubidea bermatuko dute eta behar diren neurri eta bitartekoak hartuko dituzte ondoko arau hauek benetan bete daitezenean: Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera arautzen duena; azaroaren 25eko 250/1986 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen dituen; Udal Ordenantza, Zarauzko Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen (GAO: 129 zk., 1994ko urriaren 29koa; 119 zk., 1998ko ekainaren 26koa; eta 94 zk., 2003ko maiatzaren 23koa); eta garapeneko gainerako xedapenak.

#### 3. artikulua.- Ahalmenak

1.- Udal agintek autonomiaz kudeatzen dituzte udalerriko interesak. Horretarako, legeak lurralde izaerako administrazio publiko gisa aitortzen dizkion ahalmen, presuntzio eta prerrogatibak ditu.

2.- Ahalmen, presuntzio eta prerrogatiba horiek ondokoak dira:

- a) Erregelamenduak egiteko eta bere burua antolatzeko ahalmenak.
- b) Zergapetzeko eta finantzak kudeatzeko ahalmenak.
- c) Programatzeko edo planifikatzeko ahalmenak.
- d) Desjabetzeko, mugak jartzeko eta bere ondasunak ofizioz berreskuratzeko ahalmenak.
- e) Egintzen legitimitate-presuntzioa eta bete beharra.
- f) Nahitaez betearazteko eta zigortzeko ahalmenak.

- g) Bere egintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahalmena.
- h) Bere ondasunen eta eskubideen enbargaezintasuna, legeetan ezarritako baldintzetan; Ondasun Publikoari bere kredituetarako onartzen zaizkion lehenespenak, lehentasunak eta gainerako prerrogatibak, Estatuko Ogasunari eta Autonomia Erkidegokoari dagozkienei kalterik egin gabe.

## I. TITULUA

### UDALBATZA

#### I. KAPITULUA

##### UDALBATZAREN OSAKETA

#### 4. artikulua

Udalari dagokio udalerraren gobernu eta administrazioa zuzentzea; eta ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde Arau Orokorra ezartzen duenak, III. tituluaren xedatzen duenarekin bat etorriz, hautatutako 21 zinegotziak dira horren kideak.

#### 5. artikulua

Heriotzagatik, ezintasunagatik edo uko egiteagatik zinegotzi baten aulkia hutsik geratzen bada, kargu hutsa zerrenda beretik kokapen-ordenaren arabera dagokion hurrengo hautagaiari edo, behar denean, ordezkari emango zaio.

#### 6. artikulua

Heriotzagatik, ezintasunagatik edo uko egiteagatik hutsik gelditutako zinegotzi karguak betetzeko nahikoa hautagai edo ordezko ez badago, eta horren ondorioz izatezko zenbatekoa 14tik beherakoa bada, Batzorde Kudeatzaile bat eratuko da. Karguan jarraitzen duten udalbatzaren kide guztiek eta, azkenengo udal hauteskundearen emaitzak kontuan hartuta, Aldundiak izendatutako pertsona egoki eta arras errotuek osatuko dute 21 kideko Batzordea.

#### II. KAPITULUA

##### UDALBATZAKO KIDEEEN AGINTALDIA

#### 7. artikulua

1.- Udalbatzako kideen agintaldia lau urtekoa da, hautatuak diren egunetik kontatzen hasita.

2.- Agintaldia amaituta ere, udalbatzako kideek beren zereginetan jarraituko dute, administrazio arruntaren ondorioetarako bakarrik, ondorengoak karguaren jabe egiten diren arte. Ezingo dute inolaz ere gehiengo kualifikatua behar duen erabakirik hartu.

## 8. artikulua

Udalbatza deuseztatzen bada (nahitaezko hauteskunde partzialen bidez edota deuseztatua izandakoaren agintaldia amaitu delako) udalbatza berria eratzen den arte, Aldundiak izendatutako eta gehienara 21 kidek osatutako Batzorde Kudeatzailearen esku geratuko da gaien administrazio arrunta.

Batzordekide guztien artean boto gehienak lortzen dituen kideak burutuko ditu alkatearen eginkizunak.

### III. KAPITULUA UDALBATZA ERATZEA ETA ALKATEA HAUTATZEA

## 9. artikulua

1.- Hauteskundeak egin eta biharamunetik kontatzen hasita hogeigarren egunean eratuko dira Udalbatzak, bilkura irekian, zinegotzi hautetsiak izendatzearen aurka hauteskunde-errekurtsorik aurkeztu ez bada behintzat. Kasu horretan, hauteskundeen ondorengo berrogeigarren egunean eratuko dira.

2.- Horretarako, adin-mahaia osatuko da, ekitaldian bertan dauden adin gehieneko eta gutxieneko zinegotziek osatua; eta idazkari gisa Udalbatzakoa arituko da.

3.- Mahaiak egiaztagutunak edo hautetsien nortasuna egiaztatzen duten kreditazioak egiaztatuko ditu, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udalari bidalitako ziurtagirietan oinarrituta.

4.- Aurrekoa bete ostean, zinegotzi hautetsien gehiengo osoa bildu bada, Mahaiak Udalbatza formalki eratutzat joko du. Bestela, bi egun beranduago beste bilkura bat egingo da, eta egun horretan Udalbatza eratuta geratuko da bertan dauden zinegotziak zenbat diren kontuan izan gabe.

## 10. artikulua

Udalbatza eratzen den bilkuran bertan alkatea hautatzeari ekingo zaio, honako prozedurarekin bat etorritz:

- a) Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke hautagai.
- b) Horietakoren batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, alkate hautatua izango da.



- c) Inork lortzen ez badu aipatutako gehiengoa, herritarren boto kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzia alkate hautatua izango da. Berdinketarik badago, zozketa bidez erabakiko da.

## **11. artikulua**

14. artikuluan araututako kasuan izan ezik, Alkatetza hutsik geratuz gero aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera erabakiko da. Horretarako, alkatearen zerrenda bereko hurrengoa izango da zerrendaburua, kandidaturari uko egiten ez badio, behinik behin.

## II. TITULUA

### ORGANOAK ETA HAIEN FUNTZIONAMENDUA

#### I. KAPITULUA

##### ORGANOAK OROKORREAN

#### 12. artikulua

1.- Alkateak eta zinegotziek osatzen dute Udala. Alkateak zinegotzien artean alkateordeak izendatuko ditu.

2.- Udalaren beharrezko organoak honako hauek dira:

- a) Alkatea
- b) Alkateordeak
- c) Udalbatza
- d) Tokiko Gobernu Batzarra
- e) Informazio-batzordeak
- f) Kontuen Batzorde Berezia

3.- Udalaren organo osagarriak honako hauek dira:

- a) Zinegotzi ordezkariak
- b) Bozeraileen Batzordea
- c) Zerbitzuak kudeatzeko organo deskontzentratuak eta deszentralizatuak: Zarauzko Kirol Patronatua, Zarauzko Turismo Bulegoa eta Zarautz-Lur SA Kide Bakarreko Sozietate Anonimoa.
- d) Udalak sor ditzakeen Herritarren Partaidetzarako Foro edo Arloko Kontseiluak.

#### II. KAPITULUA

##### ALKATEA

#### 13. artikulua

1.- Alkatea, kide bakarreko organoa, Udalbatzako burua da.

2.- Alkateak, hala badagokio, Udalbatzarraren aurrean egingo dio karguari uko, eta horrek ez du esan nahi derrigorrez zinegotzi karguari ere uko egiten dionik.

#### 14. artikulua

1.- Alkatea bere kargutik kendu ahal izango da, 11 zinegotzik erabakitako gaitzespen-mozioaren bidez.

2.- Zinegotzien gehiengo osoak izenpetu behar du, gutxienez, mozioa, eta proposatutako alkategaiaren izena ere aurkeztuko du; mozioak aurrera egiten badu, hura alkate hautatuko da. Mozioa aurkezten denetik hamabost eguneko epean eztabaidatu eta bozkatuko dute horretarako deitutako osoko bilkura batean. Zinegotzi batek ezin dezake bere agintaldian gaitzespen-mozio bat baino gehiago izenpetu.

3.- Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako zinegotzi guztiak hautagai izan daitezke.

#### 15. artikulua

1.- Alkateordeek, izendapen-ordenari jarraiki, ordezkatu dute alkatea, hura kanpoan edo gaixo dagoenean edota kargua hutsik geratzen denean. Alkateak berak izendatuko ditu alkateordeak, Tokiko Gobernu batzarreko kideen artean; izendapena baliogabetu ere berak egingo du.

2.- Egoera horiek zehazteko, eta legeak kontrakorik ezartzen ez badu, ondoko arauak beteko dira:

- a) Kargua hutsik geratzen bada, udal hauteskunderi buruzko araudiak aginduko du.
- b) Kanpoan izate egoerak alkatea udal mugapean ez egotea eskatuko du eta, besteak beste, ondoko kasuetan gertatuko da:
  - Alkateak aldeztu aurretik egoera hori formalizatzea.
  - Alkateak egoera gertatzen ari den aldi berean horren berri ematea.
  - Alkatea leku ezezagun batean badago edota, alkatea ez egotearekin bateraezinak diren presako arrazoiengatik, Tokiko Gobernu Batzarrak hala eskatu eta alkateak uko egiten badiu aurreko b) atalak aipatzen duen adierazpena egiteari, orduan Tokiko Gobernu Batzarrak berak aitortzea.
- c) Gaixotasun egoeran, dagokiona aldatuz, aurreko kasuetan bezala gertatuko da.

3.- Edozein kasutan idazkariak hartu beharreko neurriak hartuko ditu egoera jasoaizteko eta ordezkapena atzerapenik gabe gerta dadin.

## 16. artikulua

1.- Alkateari, dena den, ondoko eskurantzak dagozkie:

- a) Udal gobernua eta administrazioa zuzentzea.
- b) Udala ordezkatzeta.
- c) Udalbatzaren osoko bilkuretara, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuretara eta bestelako udal organoen bileretara deitzea eta horien guztien buru izatea. Halaber, berdinketak kalitatezko botoarekin erabakitzea.
- d) Udal zerbitzuak eta obrak zuzentzea, ikuskatzea eta sustatzea.
- e) Bandoak ematea.
- f) Kudeaketa ekonomikoa garatzea, onartutako aurrekontuarekin bat etorritz; bere eskumeneko mugen barnean gastuak xedatzea; kreditu-eragiketak ituntzea (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 177. artikuluan jasotzen dituenak alde batera utzita), baldin eta eragiketa horiek aurrekontuan aurreikusita badaude eta ekitaldi ekonomiko bakoitzean metatutako zenbatekoa baliabide arrunten 100eko 10etik beherakoa bada -diruzaintzakoak izan ezik zeren, kasu horretan, aurreko ekitaldian likidatutako sarreraren 100eko 15etik beherakoa izango baita une bakoitzeko eragiketa bizien zenbateko metatua; ordainketak agintzea eta kontuak ematea; hori guztia, Toki Ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoarekin bat etorritz.
- g) Lan-eskaintza publikoa onartzea, Udalbatzak onartutako aurrekontuarekin eta plantillarekin bat etorritz; bai langileak hautatzeko bai lanpostuak betetzeko lehiaketetako probetako oinarriak onartzea; eta finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.
- h) Langile guztien goi-buruzagitza betetzea; eta horien izendapena eta zigorrak erabakitzea, Udalbatzako funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan-kontratupeko langileak lanetik bidaltzea barne, azken bi kasuetan, Udalbatzari jakinaraziko dio egiten duen lehenengo osoko bilkuran. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 99.1 eta 3 artikuluetan xedatutakoari kalte egin gabe ulertuko da eskurantza hau izaera nazionala duten funtzionarioen gaikuntzari dagokionez.
- i) Udaltzaingoaren buruzagitza betetzea.
- j) Plangintza orokorra garatzeko berariaz Udalbatzari esleitzen ez zaizkion plangintza-tresnak onartzea, bai eta hirigintzako kudeaketa-tresnak eta urbanizazio proiektuak onartzea ere.

- k) Ekintza judizial eta administratiboak aurrera eramatea eta Udala defendatzea bere eskumeneko gaietan, baita gai horiek beste organo bati eskuordetzan eman badizkio ere eta, presako kasuan, Udalbatzaren eskumeneko gaietan. Azken suposamendu horretan, Udalbatzari jakinaraziko dio egiten duen lehenengo osoko bilkuran, hark bere aldetik berretsi dezan.
- l) Udalbatzari, Alkatetzaren eskumeneko gaiekiko kaltegarritasunaren aitortpena proposatzeko ekimena.
- m) Hondamendi edo ezbehar publiko edota horien arrisku larrietan, bere kasa eta ardurapean, beharrezko neurri egokiak hartzea, Udalbatzari berehala jakinaraziz.
- n) Bere agintaritzari desobeditzeagatik edo udal ordenantzen arau-hausteagatik hutsegiteak zigortzea, baldin eta ahalmen hori bestelako organoek esleitua ez badute.
- ñ) Obretako, horniduretako, zerbitzuetako eta zerbitzu publikoen kudeaketako kontratuetan, kontratu administratibo berezietan eta kontratu pribatuetan kontratazio organo gisa dituen eskumenak, baldin eta aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 10 edo, dena den, 6.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez badute. Horien artean, urte anitzeko izaera dutenak sartzen dira, honako baldintzekin: lau urtetik beherako iraupena badute eta urteroko guztietako zenbateko metatuak gainditzen ez badute ez aipatutako portzentajea (lehenengo ekitaldiko aurrekontuaren baliabide arruntei dagokiena) ezta adierazitako kopurua ere.
- o) Obra eta zerbitzuetako proiektuak onartzea, horiek kontratatze edo kontzesioan emateko eskuduna bada eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- p) Ondasunen gaineko emakidak esleitzea eta ondasun higiezinak eta ondare-legeidiarekin lotutako eskubideak erostea, aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 10 edo, dena den, 3.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez badute; bai eta ondarea besterentzea ere, adierazitako portzentajea edo kopurua gainditzen ez badu.
- q) Lizentziak ematea, arloko legeek berariaz Udalbatzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari esleitzen dietenean izan ezik.
- r) Udalaren erabakiak argitaratzeko agintzea, eta erabakiok bete eta betearaztea.
- s) Legeek berariaz esleitzen dizkioten gainerakoak eta, halaber, Estatuko edo Autonomia Erkidegoko legeriak udalerrinari eta ez bestelako udal organoei ematen dizkion guztiak.

2.- Alkatearen eskumenekoak dira, halaber:

- a) Alkateordeak izendatzea.
- b) Udal Bandoak, Erregelamenduak eta Ordenantzak betearaztea.
- c) Zinegotziei isunen bidez zigorrak ezartzea, Autonomia Erkidegoko Legeak zehazten dituen baldintzetan, arrazoirik gabe bilkuretara ez joateagatik edo beren betebeharrak behin eta berriz hausteagatik; eta Udalbatzako zerbitzuen eskuetan dauden aurrekari, datu edo informazio oro zinegotziei eskuratzeko agintzea, Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren arabera.
- d) Aurrekontu-proiektua prestatzea; udal zergak aplikatzeko eta eragina izateko ekintzak ematea, bai eta diru-sarrerak egiteko behar diren gainerako ekintzak ere; horniduren fakturak eta obra eta zerbitzuetako ziurtapenak onartzea, bai eta onartutako obligazioak betetzeko behar diren gainerako guztiak ere; udal fondoan ohiko eta aparteko kontaktetara joatea; eta kutxa gotorraren hiru giltzetako bat edukitzea.
- e) Administratuen jardueraren gain esku hartu behar denean, manu edo debekuzko banako aginduak ematea, jarduera hori aurreko zenbakiko q) letran sartu gabekoa bada, eta Udalbatzak, batik bat, hirigintzako legeriaren arabera kudeaketa-tresnak onartzeko gaietan dituen ahalmenei kalterik egin gabe. Bereziki, alkateak hartuko ditu higiezin edo eraikuntzen hurre-hurreko aurreko egoera dagoenean legeria horrek baimentzen dituen salbuespenezko neurriak, bai jendea bertatik aterarazteari bai haien segurtasunari dagokienez.
- f) Obrak, zerbitzuak, hornidurak edo bestelako kontratuak esleitzeko kontratazio-mahaiburu izatea.
- g) Honako hauetan aipatzen den txostena egitea: Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduak, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretu bidez onartutakoak, 30.2.c) artikuluan; eta otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskadiko ingurugiroa babesteko lege orokorrak, 58.3 artikuluan.
- h) Legeek edo, oro har, xedapenek zuzenean ezarritako eta berariaz udalerriko bizitzan eragina duten eginbeharrak betearaztea.

3.- Alkateak bere eskurantzaren erabilera eskuordetzan eman dezake, ondoko hauek izan ezik: Udalbatzaren eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuretara deitzea eta horietan buru izatea; berdinketak kalitatezko botoarekin erabakitzea; kreditu-eragiketarik ituntzea; langile guztien goi-buruzagitza betetzea; funtzionarioak zerbitzuetatik kentzea eta lan-kontratupeko langileak lanetik bidaltzea; eta artikuluan honen 1 zenbakiko a), e), j), k) l) eta m) ataletan adierazitakoak. Hala eta guztiz ere, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzan eman diezaiokete j) atalean jasotako eskurantzaren erabilera.

4.- Alkatearen egintzek dekretu forma izango dute.

### **17. artikulua**

Alkateari dagokio, Udalaren ohiko ordezkaria den aldetik, administrazio arteko harremanetarako neurriak hartzea. Horretarako, bai udalbatzako kideek bai Udalbatzaren zerbitzura dauden langileek ondoko arauak beteko dituzte:

- a) Agintaritza publiko guztiekin komunikazio formala alkateak sinatutako idatziaren bidez egingo da, alkateak berak emandako eskuordetzen ondorioz komunikazio hori beste udalbatzako kide batzuek egin dezaketenean izan ezik.
- b) Ziurtapenak alkateak agindu eta "ontzat emanda" egingo dira. "Ontzat emate" horrek bakarrik egiaztatzen du funtzionario ziurtatzaileak karguan diharduela eta sinadura benetakoa dela.
- c) Alkatea izango da udal mugapean egiten diren ekitaldi publikoen buru, legezko xedapenen bidez buruzagitza hori beste aginte bati badagokio izan ezik.

### **18. artikulua**

Alkateak eskuordetzan eman dituen eskurantzak guztien berri emango dio Udalbatzari, egiten duen lehen bilkuran. Kontu emate hori gehienez ere hilabeteko epean egingo da ondoko eskurantzak direnean:

- a) Gastuak xedatzea eta ordainketak agintzea.
- b) Udaltzaingoaren gaineko buruzagitza egitea, bai eta armak erabiltzen dituzten funtzionarioak izendatzea eta zerbitzutik kentzea ere.
- c) Obrak eta zerbitzuak kontratatzea.

### III. KAPITULUA UDALBATZARRA

#### 1. atala. Eskurantzak eta udalbatzako kideen parte-hartzea

##### 19. artikulua

1.- Udalbatzarra, Udaleko kide anitzeko organo gorena, udalbatzako kide guztiek osatzen dute.

2.- Udalbatzak bere eskurantzak ohiko eta aparteko bilkuretan gauzatzen ditu. Bilkuretan kide guztiek dute hitza eta botoa, erregelamendu honen baldintzen arabera erabiltzen dituztenak, hain zuzen.

##### 20. artikulua

1.- Udalbatzarrari, dena den, ondoko eskurantzak dagozkio:

- a) Gobernu organoak kontrolatzea eta fiskalizazioa egitea.
- b) Ondoko gaiei buruzko erabakiak hartzea: udalaz gaindiko erakundeetan parte-hartzea; udalerraren mugak aldatzea; udalerrria baino maila txikiagoko udalerrri eta erakundeak sortu edo ezabatzea; organo deskontzentratuak sortzea; udalaren burutasuna aldatzea, honen izena edo erakunde haiena aldatzea eta bere bandera, entseina edo armarrria hartzea edo aldatzea.
- c) Plangintza orokorrari hasierako onespina ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal-izapideen amaiera onartzea, bai eta tresna horiek aldatzea helburu duten hitzarmenenak ere.
- d) Erregelamendu Organikoa eta Ordenantzak onartzea.
- e) Zerga izaera duten baliabideak zehaztea; Aurrekontua onartzea eta aldatzea; bere eskumenari dagozkion gastuak zehaztu eta kontuak onartzea; hori guztia Toki-ogasunei buruzko legearekin bat etorritz.
- f) Zerbitzuak eta udalekotze-espeditenteak kudeatzeko moduak onartzea.
- g) Beste herri administrazio bateg eskuordetzan emandako eskumenak onartzea.
- h) Eskumen mailako gatazkak beste herri erakunde eta herri administrazioen aurrean azaltzea.



- i) Pertsonalaren plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; funtzionarioen lansari osagarri finkoak eta aldizkakozen zenbatekoa, eta behin-behineko pertsonalaren kopurua eta araubidea finkatzea.
- j) Udalbatzarraren eskumenei dagokienez, egintza judizial eta administratiboak aurrera eramatea eta udalbatza defendatzea.
- k) Udalaren egintzen kaltegarritasuna aitortzea.
- l) Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
- m) Kreditu-eragiketak ituntzea, baldin eta eragiketa horiek aurrekontuan aurreikusita badaude eta ekitaldi ekonomiko bakoitzean metatutako zenbatekoa baliabide arrunten 100eko 10etik gorakoa bada -diruzaintzakoak izan ezik zeren, kasu horretan, aurreko ekitaldian likidatutako sarreren 100eko 15etik gorakoa izango baita une bakoitzeko eragiketa bizien zenbateko metatua- hori guztia Toki-ogasuna arautzen duen legearekin bat etorritz.
- n) Obretako, horniduretako, zerbitzuetako eta zerbitzu publikoen kudeaketako kontratuetan, kontratu administratibo berezietan eta kontratu pribatuetan, kontratazio organo gisa dituen eskumenak, baldin eta aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 10 edo, dena den, 6.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen badute. Horien artean, urte anitzeko izaera dutenak sartzen dira, honako baldintzekin: lau urtetik gorako iraupena badute; eta lau urte baino gutxiago irauten duten urte anitzetakoak ere bai, baldin eta urteroko guztietako zenbateko metatuak gainditzen badute aipatutako portzentajea (lehenengo ekitaldiko aurrekontuaren baliabide arruntei dagokiena) eta, beti ere, letra honetan adierazitako kopurua baino altuagoa bada.
- ñ) Obra eta Zerbitzuen proiektuak onartzea kontratatzeko edo esleitzeko eskumena duenean, eta aurrekontuan artean sartu gabe daudenean.
- o) Udalbatzaren ondasunen gaineko emakidak esleitzea, ondasun higiezinak eta ondare-legediarekin lotutako eskubideak erostea, eta ondarea besterentzea, horien balioak aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 10 edo, dena den, 3.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen badu, bai eta balio historiko edo artistiko aitortua duten ondasunak ere, horien balioa edozein izanda ere.
- p) Udalbatzarrari egoki dakizkiokenak, horiek onartzeko gehiengo berezia behar delako.
- q) Legeak espresuki emandako gainerako eskumenak.

3.- Halaber, Udalbatzari dagokio alkatearen aurkako gaitzespen-mozioari eta horrek aurkeztutako konfiantza kontuari buruzko bozketa. Bozketa hau hauteskunderi buruzko legedi orokorrak dioenarekin bat etorritz egingo da.

4.- Udalbatzak eskuordetzan eman diezaioke bere eskurantzzen jarduera alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari; 2 zenbakiko a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta p) letrak eta artikulua honetako 3 zenbakikoak izan ezik.

## **21. artikulua**

1.- Bilkura guztietan hitz eta boto eskubidea izateaz gain, zinegotziek parte har dezakete, banaka edo taldeka, ondoko bideak erabiliz:

- a) Bilkura guztietan: proposamenak, boto partikularrak eta zuzenketak eginez.
- b) Ohiko bilkuretan, gainera: presako mozioak, galdera eta interpelazioak, eta eskariak eginez.

2.- Zinegotziek, halaber, gaitzespen-mozioa erabil dezakete.

## **22. artikulua**

1.- Proposamenen helburua gai bat eguneko aztergaietan sartzea da, behar bezala arrazoitutako presako arrazoiek bultzatuta eta dagokion informazio-batzordeak aurrez txostenik egin gabe, bai alkate/udalburuaren ekimenez edo bozeramaileraren baten ekimenez. Horretarako Idazkaritzan aurkeztuko da aurrerapen nahikoarekin.

2.- Kasu hori gertatzen bada ezingo da gai hauei buruzko inolako akordiorik hartu, Udalbatzarrak eguneko aztergaietan sartzea berresten ez badu.

## **23. artikulua**

1.- Boto partikularrak informazio-batzordeetan bakarrik planteatuko dira, eta bertako kideren batek planteatuko ditu; onartutako irizpenarekiko desadostasuna adierazteko erabiliko dira eta arrazoituak izango dira.

2.- Udalbatzaren osoko bilkuran irakurriko dira proposamena irakurri ondoren, eta horren aurretik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

3.- Boto partikularra onartzeak proposamena baztertzea dakar eta gaiaren ebazpena haren arabera izango da.

## **24. artikulua**

1.- Zuzenketak, berriz, irizpen edo proposamenak aldatzeko proposamenak dira, udalbatzako edozein kidek batzarburuari idatziz aurkeztutakoak, aztergai baten deliberazioa hasi baino lehen; erabakitze dagoen proposamenari buruzkoak izango

dira, proposamenaren osotasunari edo atal bati dagozkionak, eta eztabaida hasi aurretik arrazoitutako idatziz aurkeztuko dira.

Hala ere, batzarburuak eztabaidatzen ari diren bitartean onar ditzake, baldin eta horien helburua akatsak edo oker tekniko edo semantikoak edo ez-azaltze hutsak zuzentzea denean, eta horretarako bertaratutakoen baimena lortzen badu.

2.- Osoko zuzenketa onartzen bada aurreko artikulua 3 zenbakiko ondorioak izango ditu.

## **25. artikulua**

Presako mozioaren bidea erabiliko da ohiko bilkuretan, Udalbatza zuzenean eguneko aztergaietan azaltzen ez den gai baten jakinaren gainean jarri nahi denean. Mozioaren egileak kasuaren presa argudiatu eta arrazoitu beharko du eta Udalbatzarrak erabakiko du kide guztien gehiengo osoaren bitartez gaiaren presa (gaia sakonean aztertu aurretik), edo hurrengo bilkura batean aztertzeko erabakia hartuko du.

## **26. artikulua**

Udalbatzako kideek eskariak egiteko duten eskubidea honako arauekin bat etorriz egingo da:

- 1.a Eskaritzat hartuko da udaleko zenbait gobernu organori zuzendutako edozein jarduketa-proposamen.
- 2.a Batzarburuak eskaria aurkeztea eragotz dezake, Udalaren eskumenekoa ez den gai batena dela iritzi badu.
- 3.a Udalbatzaren osoko bilkuran egindako eskariak eztabaida daitezke, baina inola ere ez dira bozkatuko, ezta jarduera administratiboaren izaera duen akordiorik hartuko ere.
- 4.a Udalbatzaren kide orok planteatzen ditzake eskariak, baita udal taldeek ere bere bozeramaileen bitartez.
- 5.a Eskariak hitzez edo idatziz aurkez daitezke eta, oro har, hurrengo bilkuran eztabaidatuko dira. Hala ere, alkate/udalburuak egoki baderitzo, aurkezten diren bilkura berean eztabaida daitezke.

## **27. artikulua**

Udalbatzako kideek galderak eta interpelazioak aurkezteko eskubidea honako arauekin bat etorriz egingo dute:

- 1.a Galdera edo interpelaziotzat hartuko dira udalbatzako kideek, gertaera edo jarduketa bati buruz, hurrenez hurren, alkateari edo zinegotziren bati egindako informazio eskaera oro.
- 2.a Galdera edo interpelazioak alkateari jakinaraziko zaizkio bilkuraren aurretik, hitzez edo idatziz, eta ohiko bilkuretan bakarrik aurkeztu ahal izango dira, eguneko aztergaietan jasotako gaiekin bukatu ondoren. Hala ere, alkateak aurreko artikuluko 2. arauan adierazitakoaren arabera joka dezake.
- 3.a Aurreko artikuluko 3. arauan bezala, Udalbatzarrak galderak eta interpelazioak eztabaidatu ahalko ditu, baina ez dira inola ere bozkatuko ezta jarduera administratiboaren izaera duen akordiorik hartuko ere.
- 4.a Udalbatzako edozein kidek planteatu ditzake galderak, baita udal taldeek ere, beren bozeramaileen bitartez.
- 5.a Bilkura batean ahoz planteatutako galdera eta interpelazioen hartzaileak, oro har, hurrengo bilkuran erantzungo ditu, galdera edo interpelazioa jaso duenak berehala erantzun nahi ez badu, behintzat.

Idatziz jasotako galdera eta interpelazioen hartzaileak hurrengo bilkuran erantzungo ditu, galdera edo interpelazioa jaso duenak berehala erantzun nahi ez badu, behintzat.

Bilkura egin baino hogeita lau ordu lehenago idatziz egindako galdera eta interpelazioak, normalean, bilkuran bertan erantzungo dira edo, behar bezala arrazoituz gero, hurrengoan.

## **28. artikulua**

- 1.- Zinegotzi orok bere agintaldian gaitzespen-mozio bakarria sina dezake.
- 2.- Zinegotzi oro Alkatetzarako hautagai izan daiteke, bere agintaldian zehar aurkez daitezkeen gaitzespen-mozio guztietan.
- 3.- Mozioaren prozedura eta ondorioak 14. artikulua ezartzen duenaren arabera izango dira.

## 2. atala. Bilkurak

### 1. azpiatala. Motak, deialdiak eta eratzea

#### 29. artikulua

1.- Udalbatzak ohiko bilkura hilero egingo du.

2.- Aurreko atalean adierazitako aldizkotasunarekin, Udalbatzak, Udala osatu ondoren egiten den lehen bilkuran, ezarriko du ohiko bilkuren eguna eta ordua; horiek aldatu ahalko dira Udalbatzaren agintaldiak dirauen bitartean.

#### 30. artikulua

Udalbatzak aparteko bilkura egingo du, alkateak horrela erabakitzen duenean, edo udalbatzako kideen legezko kopuruaren laurdenak gutxienez (udalbatzako 6 kidek) eskatzen badu; zinegotzi bakoitzak ezin ditu urtean hiru baino gehiago eskatu. Azken kasu horretan, bilkura ezingo da atzeratu eskatu denetik kontatzen hasita hamabost egun baliiodun baino gehiago; eta gai hau ezingo da beste gai batzuk dituen ohiko bilkura bateko edo beste aparteko bateko eguneko aztergaietan sartu, baldin eta deialdiaren eskatzaileek espresuki baimentzen ez badute.

Adierazitako zinegotzi kopuruak aparteko bilkura eskatu, eta Batzarburuak, goian ezarritako epean, deitzen ez badu, automatikoki deituta geldituko da, epe hori amaitu ondoren kontatzen hasita hamargarren egun baliiodunean, hamabietan; eta horrela jakinaraziko dio Udalbatzaren idazkariak kide guztiei aurrez aipatutako epea amaitu eta hurrengo egunean. Batzarburua, edo bera legez ordezkaturiko duenik, ez badago, Udalbatzarra balioz eratuta egongo da legezko udalbatzako kideen quorumaren herena (udalbatzako 7 kide) bertaratzen bada; kasu horretan bertaratutakoaren artean adinik handiena duen kidea izango da bilkurako buru.

#### 31. artikulua

1.- Udalbatzaren osoko bilkurak gutxienez bi egun baliioduneko aurrerapenarekin deituko dira, presaz deitutako apartekoak izan ezik. Kasu horretan Udalbatzak berretsi beharko du deialdiaren presako izaera hori.

2.- Alkatearen esku dago presako izaerari buruz erabakitzea. Hala ere, Udalbatzak berretsi egin beharko du izaera hori.

Horretarako alkateak presaren arrazoiak azalduko ditu eta berrestea egina dagoela ulertuko da, bestelako formalitaterik gabe, gaia eztabaidatzen hasiz, bertaratutako inork aurkako adierazpenik egiten ez badu. Aldiz, aurkako adierazpenik egiten bada, presari buruzko bozketa egingo da, eta ateratzen ez bada, alkateak bilkura amaituko du deialdia eragin zuen gaiari buruzko inolako adierazpenik egin gabe.

### 32. artikulua

1.- Udaltzarraren deialdiarekin batera eguneko aztergaien zerrenda emango zaie Udaltza osatzen duten zinegotzi guztiei; zerrenda alkateak bere iritzira ezarriko du, Udaltzako idazkariak lagunduta, azterketa eta prestaketa fasea amaituta duten espedienteen arabera izango da, eta akordio-proposamenen kopiak erantsita izango ditu.

2.- Eguneko aztergaiak udaletxeko iragarki-taulan erakusgai egongo dira, bai eta Udaltzaren web-orrian ere. Halaber, eskatzen duen orori emango zaizkio.

3.- Eguneko aztergaiak honako hurrenkera izango dute:

- a) Aurreko bilkurako akta irakurri eta, hala badagokio, onetsi.
- b) Kontu ematea. Bertan, besteri kalterik egin gabe, 18. artikuluan adierazitakoak jasoko dira; baita udaleko bizitzan eragina izango duten izaera orokorreko xedapenen informazio egokia ere.
- c) Ohiko bilkura guztietan, udal gobernuko organoen kontrolari buruzko ebazpenek aparteko atala osatuko dute, eta eguneko aztergaietan azalduko dira. Atal honetan udal taldeek edonolako eskari eta galderak egin diezazkiekete alkateari, Tokiko Gobernu Batzarreko kideei eta informazio-batzordeetako zinegotzi-ordezkariei edota batzordeburuei.
- d) Udaltzarrak ebazteko proposatutako gaiak.
- e) Udaltzako kideen proposamenak, halakorik balego.
- f) Eskariak, galderak eta interpelazioak.

### 33. artikulua

1.- Bilkura osoa banako espedienteetan jasoko da eta honakoak edukiko ditu:

- a) Udaltzarrari zuzendutako espedienteen zerrenda.
- b) Eguneko aztergaiak.
- c) Bilkura egiteko iragarkien kopia.
- d) Aktaren zirriborroa.

- e) Herri administrazioetara bidalitako erabaki-idazkien kopia, horietara bidaltzea derrigorrezkoa denean.
- f) Akordioak argitaratzeari buruzko eginbidea.
- g) Interesa duten gainerako egoerak jasotzeko eginbidea edo eginbideak.

2.- Aurreko zenbakiko a) letraren arabera, espedientea ez da amaituta egongo dagokion informazio-batzordeak emandako irizpenak jasotzen ez diren bitartean.

### **34. artikulua**

Eztabaidatzeko eta, hala badagokio, bozkatzeko oinarri izango den eguneko aztergaietan sartutako gaien dokumentazio guztia udalbatzako kideen esku egongo da, deialdia egiten den egun beretik aurrera, udaletxeko idazkaritzan.

Akordio-proposamenak eta irizpenak posta elektronikoz bidaliko zaizkie udalbatzako kideei.

### **35. artikulua**

1.- Udalbatzaren osoko bilkurak irekiak dira. Hala ere, eztabaida eta bozketa sekretuak izan daitezke baldin eta, Konstituzioaren 18.1 artikuluekin bat etorritik, hiritarren oinarrizko eskubideari dagozkion gaiak lantzen badira, eta gehiengo osoz erabakitzen denean.

Hori gertatzen bada ondorengo urratsak eman beharko dira:

- a) Udalbatzarrak erabaki beharreko espedientearekin goian aipatutako egoera horietakoren bat gerta badaiteke, alkateak idazkariari adieraziko dio gaiak ustez erasan dezakeenari jakinarazteko, eta horrek alkateari eska diezaiolke, eztabaida eta bozketa sekretuak izatea.
- b) Eskaera idazkariaren aurrean egingo da, agertze-akta bitartez, edo idatziz edo erasandakoak identifikatzeko beste edozein bitartekoz; edonola dela ere bilkuraren aurretik jakinaraziko da.
- c) Udalbatzako edozein kidek eska dezake eztabaida eta bozketa sekretuak izatea honako kasuetan: espedientearen arabera horrelako egoerarik gertatuko denik ematen ez duenean, edo erasandakoak ez agertzeagatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo beste antzekoengatik, ezin izan denean aurreko letrak adierazten duen jakinarazpena edo eskaera egin.

- d) Udaltzarrak eztabaida sekretua izatea erabaki dezake aldeko aldarrikapenaren bitartez edo udaltzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak horrela proposatuta.
- e) Publikoa areto nagusitik irtenaraziko da gaia lantzen denean; gaia bozkatu ondoren saioa berriz jendeari irekiko zaio.

2.- Komunikabideetako ordezkariak batzar-aretoan sartu ahal izango dira, behar bezala akreditatuta, eta bere lana egiteko behar duten laguntza jasoko dute.

3.- Herritarren partaidetza sustatzeko eta erabakiak hartu aurretik herritarrei eta interesdunei entzuteko, Udaltzak egin beharreko osoko bilkura baino ordu erdi lehenago, entzunaldi publiko bat irekiko da. Entzunaldi horretan, nahi duenak bere azalpenak eta iritziak eman ahal izango ditu Udaltzarrak eztabaidatu eta erabakiko dituen gaiei buruz.

Udaltzarraren osoko bilkurako edozein aztergairi buruz hitz egin nahi duenak idatzi bat aurkeztu beharko du Udal Erregistroan, jendearentzat irekita dagoen ordutegian, eta bertan bere nortasuna, ordezkaritza eta aztertuko duen gaia adieraziko ditu. Idatzi hori Udaltzarraren osoko bilkura hasi baino gutxienez sei ordu lehenago aurkeztu beharko da.

Entzunaldi publiko hori batzar-aretoan egingo da, Udaltzaren osoko bilkura hasi baino ordu erdi lehenago, eta bilkura hasteko jarritako ordurako bukatu beharko da; alkateak, edo bere ordezkariak izendatzen duen zinegotziak, moderatuko du, eta idatziz eskatu dutenei emango die hitza.

Jendearen mintzaldiak gehienez bost minutukoak izango dira, eta Alkateak moderatuko ditu.

Bozeraileek ere hitza eskatu ahal izango dute, egoki iruditzen bazaie puntuak argitzea edo azalpenak ematea.

Mintzaldiak aktan jasoko dira.

Udaltzaren osoko bilkuraren aurreko entzunaldi hori egiteko, beharrezkoa izango da legezko quorumari dagokion zinegotzi kopurua bertaratzea (7 zinegotzi), alkatea, edo bere ordezkariak izendatzen duen zinegotzia, barne. Quorumik ez egoteagatik entzunaldi hori baliozkoa ez bada, hitza eskatu dutenek aukera izango dute osoko bilkuran parte hartzeko, hain zuzen ere, aurreko entzunaldian landu ezin izan dituzten puntuetan.

Entzunaldi publikoaren iraupenean ezin izan badira parte-hartze eskaerako puntu guztiak landu, alkateak bi aukera izango ditu: edo Udaltzarraren osoko bilkura atzeratzea erabaki, edo osoko bilkuran parte hartzeko aukera eman, hain zuzen ere, aurreko entzunaldian landu ezin izan dituzten puntuetan.



4.- Udaltzaren bilkura amaitu ondoren, alkateak udalerrirako interesgarriak diren gai zehatzei buruzko eskari-galderen txanda has dezake. Alkateari dagokio txanda hori zuzendu eta ixtea.

Galderak udalerrirako interesgarri diren gaiei buruzkoak izango dira, eta idatziz egin beharko dira 48 ordu lehenago. Alkateari dagokio galderari bide eman ala ez onartzea, eta Alkateak berak edo zinegotzi arduradunek izango dute horiek erantzuteko ardura.

Galderen izaeraren arabera, horiek unean bertan erantzun ahalko dira, edo idatziz 30 eguneko epean.

### **36. artikulua**

1.- Udaltzaren eraketa baliozkoa izan dadin, udaltzako kideen legezko kopuruaren heren batek (7 kide) bertaratu beharko du; kopurua ez da inoiz hiru baino txikiagoa izango. Quorum hori bilera osoan zehar mantendu beharko da.

Nolanahi ere, batzarburuak eta idazkariak, edo legez ordezkatzeko dituztenak, nahitaez bertaratu beharko dute.

Lehen deialdian aurreko atalean adierazitako beharrezko quorumik ez badago, deialdia automatikoki bi egun beranduago eta ordu bererako atzeratuko da. Orduan ere beharrezko quorumik ez badago, batzarburuak indarrik gabe utziko du deialdia eta eguneko aztergaietan sartutako gaien azterketa jarraian egiten den lehen bilkurarako (ohikoa edo apartekoa) utziko du.

Beharrezko quoruma ez lortzeagatik izan gabe, beste edozein arrazoiengatik deitutako udaltzaren bilkura ezin bada egin, alkate-udalburuak, Bozeramaileen Batzordea entzun ondoren, bilkura hori egiteko data erabakiko du.

Udaltzako kidea osoko bilkuran bertaratutzat edo bertan dagoela iritziko da bilkura egiteko aretoan dagoenean. Batzarburuak, hala badagokio, eska diezaieke udaltzako kideei beraienez erreserbatutako aulkietan esertzeko, eta ohartaraziko die ez badute horrela egiten ez-bertaratutzat hartuko direla.

Bilkurara ez etortzea zuritu ahal izateko ezinbestekoa izango da bilkura hasi baino lehen idatziz jakinaraztea alkatearen idazkariari.

2.- Heriotzagatik, ezintasunagatik edo uko egiteagatik zinegotzi baten aulkia hutsik geratzen bada eta ezin bada bete hautagai edo ordezkorik ez egoteagatik, gelditzen diren izatezko udaltzako kide kopuruaren herenera murriztuko da aurreko quoruma, edo hirura, kopuru hura txikiagoa bada.

**37. artikulua**

83. artikulua onduoetarako honako arauak jarraituko dira:

- a) Kideren batek abstenitzeko arrazoiren bat badu, batzarburuari jakinaraziko dio, eta bilkura aretotik irten beharko du, hura eztabaidatu eta bozkatu arte.
- b) Irteten ez bada, batzarburuak agin diezaioke.
- c) Erasandakoa batzarburua bada, Udalbatzari jakinaraziko dio eta bilkura aretotik irtengo da. Orduan, kanpoan den bitartean, dagokion alkateordeak ordezkatu du batzarburua.

**38. artikulua**

Eguneko aztergaietan jasotako gai guztiak erabaki beharko dira bi kasu hauetan izan ezik: legeak quorum berezia eskatzen duelako eta hori lortzen ez delako, edo bilkura amaitu aurretik eguna amaituko delako.

Hala ere, gaiak mahai gainean geratuko dira edozein zinegotzik horrela eskatuz gero, gehiengo soilak presakotzat jotzen ez baditu behintzat.

2. azpiatala. Eztabaida eta bozketa

**39. artikulua**

1.- Lehenengo gaiak eztabaidatu egingo dira, eta gero bozkatu.

2.- Alkateak eguneko aztergaien ordena alda dezake, horiek onartzeko gehiengo berezia behar bada eta eguneko aztergaietan hasiera batean aurreikusitako hurrenkeran lortu ezin bada; edo gai bat bazter dezake, hori onartzeko beharrezko quorumik ez dagoela ikusten duenean.

3.- Halaber, erabaki dezake gai batek eguneko aztergaien hurrenkeran duen lekua aldatu eta beste tarte batean aztertzea, baina betiere bilkura berean.

**40. artikulua**

Eztabaida gertatuko da norbaitek hitza eskatzen badu, eta hori gabe ere bai, boto partikularrak edo zuzenketak aurkezten direnean. Kasu horretan boto edo zuzenketaren egileak horiek mantentzen dituela edo baztertzen dituela esatea nahikoa du.

#### **41. artikulua**

1.- Akordioak bozketa arruntez erabakiko dira; Udalbatzak berak, kasu konkretu baterako, izenezko bozketa bitartez egitea erabakitzen ez badu, behintzat. Bozketa arrunta denok aldi berean eskua jasota egingo da. Izenezko bozketa egiteko, bertaratutako udalbatzako kideei Udalbatzaren idazkariak, hurrenez hurren, galdetutakoari edo bai edo ez, etab. erantzungo diote.

Bozka baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta udalbatzako kideak botoa emateaz abstenitu daitezke.

2.- Gai bati buruzko deliberazioa hasi ondoren udalbatzako kide bat edo batzuk aretoan ez baldin badaude, bozketari dagokionez abstentziotzat hartuko da. Udalbatzako kide bat Udalbatzarraren bilkuran ez dagoela esango da, bilkura egiteko aretoan ez dagoenean.

#### **42. artikulua**

Arau orokor moduan Udalbatzak erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko ditu. Gehiengo soila izango da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Bozketa egin ondoren berdinketa gertatzen bada, berriz bozkatuko da, eta berdinketak jarraitzen badu, batzarburuak emandako botoaren aukerak irabaziko du.

#### **43. artikulua**

1.- Tokiko udalbatzen erabakiak, oro har, bertaratutako kideen gehiengo soilez hartzen dira. Gehiengo soila egongo da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean.

2.- Legezko udalbatzako kide kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharrezkoa da ondoko gaietan erabakiak hartzeko:

- a) Udalerriak sortu edo ezabatzea eta udalerrien mugak aldatzea.
- b) Udalerria baino lur eremu txikiagoa duten entitateak sortu, aldatu eta ezabatzea.
- c) Udalerraren mugak onartzea.
- d) Udalerraren izena eta hiriburutasuna aldatzea.
- e) Bandera, entseina edo armarria hartzea edo aldatzea.
- f) Udalbatzaren berezko Erregelamendu Organikoa onartu eta aldatzea.

- g) Mankomunitateak eta bestelako elkarteak sortu, aldatu edo desegitea; baita horietan atxikitzea eta bere Estatutuak onartu eta aldatzea.
- h) Funtzioak eta jarduerak beste herri administrazioei transferitzea, baita beste administrazioek emandako eskuordetzak edo kudeaketarako gomendioak onartzea ere, legeak derrigorrez berari ezarritakoak izan ezik.
- i) Ondasun komunalak zernahi ekintzetarako ematea.
- j) Ondasun eta zerbitzuak bost urte baino gehiagorako ematea, horien zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 20 baino txikiagoa bada.
- k) Jarduerak udalekotu eta probintziakotu monopolio moduan, eta zerbitzu hori kudeatzeko modu zehatza onartu.
- l) Diru edo kreditu-eragiketak onartu eta kita eta itxarroteak ematea, baldin eta horien kopurua aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 10 baino altuagoa bada, baita Toki-ogasuna arautzen duen abenduaren 28ko 39/1998 Legearen 158.5 artikuluan aurreikusten diren kreditu-eragiketak ere.
- ll) Hirigintza legedian aurreikusitako plangintza orokorreko tresnak izapidetzeko Udalbatzari hartzea dagozkion akordioak.
- m) Ondasunak besterentzea, horien zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 20 baino gehiagokoa bada.
- n) Herri jabariko ondasunak edo ondasun komunalen kalifikazio juridikoa aldatzea.
- ñ) Ondasunak dohainik ematea beste herri-administrazio edo -instituzioei.
- o) Legeak zehaztutako gainerakoak.

3.- Heriotza, ezgaitasun edo karguari uko egin izanaren ondorioz, zinegotzi kargua hutsik geratzen bada, eta hura betetzeko hautagai edo ordezkorik ez badago, aurreko quoruma murriztu egingo da eta honakoa izango da: irauten duen Udalbatzaren izatezko kide kopuruaren gehiengo osoa.

### 3. azpiatala. Bilkuretan esan-eginak

#### **44. artikulua**

Udalbatzarra balioz eratu ondoren, funtzionamendua ondorengo arauekin bat etorriz izango da:

- 1.a Udalburu-alkateak, edo bera ordezkatzeko duenak, hasiera emango dio bilkurari.

- 2.a Batzarburuak eguneko aztergaietako puntua irakurriko du eta idazkariari aginduko dio akordio-proposamena irakur dezala eta, halakorik balitz, baita boto partikularrak eta zuzenketak ere.

Udalbatzako edozein kidek horrela eskatuz gero, espedientekoak diren beste dokumentu batzuk irakurriko dira. Aldiz, ez dira irakurriko batzarburuak uste badu ez dela beharrezkoa; edo zati bat irakur dadila aginduko du beharrezkoa dela uste badu. Legez funtzio hori dagokien funtzionarioek egindako legezketasunari buruzko txostenak ezingo ditu baztertu.

Halaber, espedientearen arloko funtzionario arduradunak bertaratzea eska dezake.

- 3.a Aurreko dokumentuak irakurri ondoren, batzarburuak eztabaidari hasiera emango dio, eta:

a) Inork hitzik eskatzen ez badu, gaiak aho batez onartuta geldituko dira; boto partikularrak edo zuzenketak daudenean izan ezik. Kasu horretan Erregelamendu honetako 23. edo 24. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriko da.

b) Inork hitzik eskatzen badu:

- Batzarburuaren baimena behar du hitz egiteko.
- Udalbatzari zuzenduko zaio eta ez bertako kideren bati.
- Hitza lehen aldiz proposamena sinatu duenak edo berak adierazitako zinegotziak hartuko du, segidan, horrelakorik egonez gero, baimena eskatu ondoren, zuzenketak egin dituztenek jarraituko diete, eta ondoren gainerako zinegotziek, hauek ere baimena eskatu ondoren, batak eta besteak eskatutako hurrenkeran.
- Jarraian, beste taldeek lehen txanda agortuko dute. Hitz egiteko eskatzen duten zinegotziak, bere taldeak dituen kide kopuruaren arabera, txikienetik handienerako hurrenkeran mintzatuko dira. Talde bakoitzak gehienez bost minutuz hitz egin ahal izango du eztabaidatutako puntuan.
- Talderen batek eskatzen badu, bigarren txandari ekingo zaio, baina gehienez hiru minutuko mintzaldiak egingo dira.
- Aurreko txandak amaituta ere zeharkako aipamenengatik zinegotzi bati hitza eman diezaioke batzarburuak, haren iritzira aurreko jardunetan bere pertsona edo jokaerari buruzko okerrak edo balio-judizioak egin badira.

Batzarburuak hitz egiteko denboraren arau orokorrean salbuespenak egin ditzake, gaiak izan dezakeen garrantziaren arabera.

- Hitz egiten ari denari batzarburuak bakarrik moz diezaioke, eta horrela jokatu du denbora luzeegian ari bada, gaiaren haritik urrundu egin bada edo jada onartu edo eztabaidatutakora itzultzen bada, baita publikoa edo udalbatzako kideak edo hitz egiten ari dena ohartarazteko ere.
- Alkateak edozein zinegotzi ohartaraz dezake honako kasuetan:
  - a) Udalbatzako kideren baten edo edozein pertsonaren aurka hitz edo kontzeptu mingarriak esaten baditu.
  - b) Bilkura moztu edo, beste edonola ere, ordena hausten badu.
  - c) Hitz egin nahi badu txandarik eman gabe edo hitza kendu ondoren ere.

Bilkura berean hiru aldiz ohartarazi ondoren (eta bigarren goan hirugarren baten ondorioei buruzko abisua emanda) alkateak batzar-aretoa uzteko agin diezaioke, eta horretarako kanporatzeko beharrezkoak derizkion neurriak hartuko ditu.

4.a Batzarburuak eztabaida amaitutzat joko du nahiko eztabaidatu dela iruditzen bazaio. Halaber, bere irizpen zuhurraren arabera, Udalbatzaren erabakiak gehiegi luzatzen dituen edozein gertaera konpon dezake.

5.a Eztabaida amaitu ondoren bozketa egingo da, eta honako urratsak jarraituko ditu:

- Egon baleude, lehenengo boto partikularrei buruz bozkatuko da; jarraian, zuzenketak eta, azkenik, akordio-proposamenak, zuzenduak, halakorik balego eta egindako zuzenketak onartu badira.
- Bozketa hasi aurretik, alkate edo batzarburuak bozketaren hasiera iragarriko du.
- Batzarburuak zehatz-mehatz eta argi eta garbi adieraziko du bozketa egiteko modua eta botoa emateko era, eta ondoren hasiera emango dio. Bozketak ezingo dira moztu inola ere, eta udalbatzako kideek ezingo dute ez hitzik hartu ezta aretoan sartu edo bertatik atera ere.
- Idazkariak botoak zenbatuko ditu, eta batzarburuak ozen irakurriko du emaitza eta hartutako erabakia aldarrikatuko du.

- 6.a Udalbatzako kideek hitza har dezakete botoa azaltzeko.
- 7.a Bilkurak dirauen bitartean, alkateak bere aldetik, edo talde politikoetako bozeramailearen batek horrela eskatuta, beharrezkotzat jotzen duenean, bilkura etetea erabaki dezake ondorengo kasuetan: eztabaidatutako gaiari buruz taldeek banako deliberamenduak egiten uzteko; zinegotzi baten zain egoteko, bere botoa erabakigarria denean gehiengo osoa behar duten akordioak hartzeko; eztabaidetan atseden hartzeko; etab.

Edozein arazo dela medio Udalbatzaren bilkuran egindako etenaldi baten ondoren horri berriz ekitean, etenaldiaren ondoren bertaratutako zinegotziekin jarraituko du, legezko gutxieneko quoruma bertaratu bada, behintzat.

- 8.a Udaleko talde politikoaren bozeramaileak edo zinegotziak egoki arrazoituz gero, eska dezake, eztabaidan zehar eguneko aztergaietan sartutako espedienteren bat baztertzea, bertan dokumentu eta txostenak sartzeko; eska dezake, halaber, espedientea mahai gainean gelditzea, eta horri buruzko eztabaida hurrengo saiorako uztea. Bi kasuetan, eskaera bozkatu egingo da, eztabaida amaitu ondoren eta gaiaren mamiari buruzko bozketari ekin aurretik. Gehiengo soilak eskaeraren alde bozkatzen badu ez da akordio-proposamena bozkatzeko aukerarik izango.
- 9.a Bilkuretara bertaratutako jendeak ezingo du horietan hitz egin, ezta aldeko edo kontrako adierazpenik egin ere. Hortaz, batzarburuak, muturreko kasuetan, edozein arrazoiengatik bilkuraren martxa normala galarazten duen pertsona kalera dezake.
- 10.a Batzar-aretoa ezingo da kartel, argazki edo pankartarik eraman, ez publikoak ezta udalbatzako kideek ere. Hortaz, batzarburuak kalera dezake horrelakoren bat ekartzen duen oro.

#### **45. artikulua**

Ohartarazpenak egingo dira Erregelamendua hausten denean, hitz mingarri edo begirunerik gabekoak esaten direnean, edo udal organo edo erakunde publikoen izenaren aurkako esaldi erasotzaileak jaurtitzen direnean.

Norbaitek bi ohartarazpen jasotzen baditu, alkateak hitza ken diezaioke eta gero berriz eman, justifika dadin edo barkamena eska dezan.

### 3. atala. Aktak

#### 46. artikulua

1.- Udalbatzaren idazkariak bilkura bakoitzeko akta egingo du eta honakoak idatziz jasoko dira:

- a) Bilkura egin den lekua, udalaren izena eta egin den tokia adieraziz.
- b) Eguna, hila eta urtea.
- c) Bilkura hasi den ordua.
- d) Batzarburuaren izen-deiturak, bertaratutako zinegotzienak, ezin etorria adierazi dutenenak eta aitzakiarik gabe bertaratu gabekoenak.
- e) Bilkuraren ohiko edo aparteko izaera, eta lehen edo bigarren deialdian egiten den.
- f) Idazkaria edo bera legez ordezkaturako duena bertaratu izana, eta diruzaintzaz arduratzen den funtzionarioa ere egon izana, bilkuran egon denean.
- g) Aztertuko diren gaiak eta horien gaineko akordioen xedapenak.
- h) Egiaztatutako bozketak eta izenezko bozketako izenen zerrenda edo lista, zinegotzi bakoitzak emandako botoa zein den zehazten den bozketetan. Bozketa arruntetan aldeko, kontrako eta abstentzio botoen kopurua jasoko da. Botoa zein izan den izenez jasoko da interesdunek horrela eskatzen badute.
- i) Eztabaidan eta horren gorabeheretan parte hartu duten zinegotzi talde edo multzo baten iritzi laburtuak.
- j) Idazkariaren iritzira, bilkuran gertatutakoen artetik, aipatzekoak diren gorabehera guztiak.
- k) Batzarburuak bilkura amaitu duen ordua.

2.- Bilkuran esandakoak grabatu egingo dira, eta bilkuraren eguneroko modura gordeko dira.

#### 47. artikulua

1.- Udalbatzaren bilkura (ohikoa edo apartekoa) hasi ondoren, aurreko bilkuraren akta onartuko da, eta ez da beharrezkoa izango dagokion bilkuran onartu baino lehen akta osoa irakurtzea, kontuan hartzen badugu, udalbatzako kide guztiek bilkura aurretik jaso dutela.



2.- Akordioak hartzen parte hartu zuen kideren batek iritzi badu puntu zehatz baten irakurketan tratatu edo erabakitakoari buruzko zalantzak daudela, batzarburuari eska diezaioke puntu hori argi dezala, eta Udalbatzak ere horrela baderitzo, akta berriz erredaktatuko da, akats material edo izatezkoak zuzenduz; hala ere, hartutako erabakiak ezingo dira aldatu. Aldaketak zirriborroaren albo batean idatziko dira.

3.- Akta bakoitzean aurrekoaren irakurketa eta onartzea aipatu ondoren, egindako ohar eta zuzenketak idatziz jasoko dira, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz.

#### **48. artikulua**

Akta onartu eta berehala, idazkariak dagokion liburuan sartzeko aginduko du, horretarako Erregelamendu honetako 72. artikuluan oro har idatziz jasotzeko jarduerari buruz ezartzen diren baldintzak jarraituko dira.

Udalbatzarraren bilkuretako aktak Udalaren web-orrian argitaratuko dira, bertan azaltzen diren pertsonen adostasunik gabe, baldin eta izaera pertsonaleko datuek pertsona horien ohoreari, intimitateari eta berezko irudiari eragiten ez badie.

#### **49. artikulua**

1.- Akta-liburua alkatea eta idazkariaren sinadurek baimenduko dute.

#### **50. artikulua**

Batzarkideak bertaratu ez direlako, edo beste arrazoi batengatik, bilkurarik egiten ez bada, idazkariak aktaren ordezkari bere sinaduraz baimendutako eginbidea egingo du, eta bertan arrazoiak, bertaratutakoaren izenak eta bertaratu ezina arrazoitu dutenenak idatziz jasoko ditu.

### **IV. KAPITULUA TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

#### **51. artikulua**

1.- Tokiko Gobernu Batzarra alkatea eta 7 zinegotzik osatzen dute.

2.- Tokiko Gobernu Batzarreko kideak alkateak bere kasa izendatu eta bereizten ditu.

3.- Alkatetzari 2. zenbakiak ematen dion ahalmena utzi gabe, alkatea izendatu eta biharamunetik kontatzen hasita hamar eguneko epean, eratuko da Tokiko Gobernu Batzarra. Alkateak egiten dituen izendapen guztien berri Udalbatzari emango dio hamar eguneko epean.

4.- Bilkurak ez dira irekiak. Gobernu batzarreko kideak soilik joan daitezke bilkurara; hala ere, alkateak gai jakin bat tratatzeko edo horri buruzko informazioa emateko zinegotziren bat edo udal teknikari bat egotea eska dezake.

## **52. artikulua**

Tokiko Gobernu Batzarraren zereginak dira:

1.- Alkateari bere eskurantzetan laguntzea.

2.- Alkateak edo beste udal organo batek emandako eskurantzak edo legez tokatzen zaizkionak.

3.- Tokiko Gobernu Batzarrak ohiko bilkura astero egingo du alkateak dekretu bidez erabakitako egun eta orduan.

4.- Tokiko Gobernu Batzarrak aparteko eta presako bilkura egingo du, alkateak deitzen badu.

5.- Bilkura ez da egingo deitu eta hogeita lau ordu igaro baino lehen, aparteko eta presako bilkuretan izan ezik. Azken hauetan eguneko zerrendan sartutako aztergaiak jakin aurretik, bere kideek presako izaera aitortu beharko dute, batzarkideen gehiengoaren aldeko akordioarekin.

Eguneko aztergaien zerrenda udaletxeko iragarki-taulan erakutsiko da. Halaber, eskatzen duten erakunde guztiei emango zaie.

6.- Tokiko Gobernu Batzarra balioz eratzeko kideen gehiengo osoak (4 batzarkide) bertaratu beharko du. Quorumik ez badago, bigarren deialdian eratuko da, lehenengoa egiteko deitutako ordua baino ordubete beranduago; kasu horretan nahikoa da batzarkideen herena bertaratzea; beti ere, inoiz ez 3 baino gutxiago.

## **V. KAPITULUA INFORMAZIO-BATZORDEAK**

### **53. artikulua**

1.- Informazio-batzordeak udalbatzako kideek soilik osatuko dituzte, eta ez dute erabakitze eskurantzarik izango. Udalbatzak edo Tokiko Gobernu Batzarrak

(Udalbatzak bere esku utzitako eskumenekin ari denean) erabaki beharreko gaien azterketa, txostena edo kontsultak egitea da bere zeregina, ez ordea, presakotzat jotzen diren akordioak hartu behar direnean.

2.- Era berean, Tokiko Gobernu Batzarraren, eta alkate edo batzarburuaren berezko eskumeneko gaietara buruz ere informatuko dute, baldin haiek berariaz erabaki eta horrela jakinarazi badiete.

3.- Informazio-batzordeen bilkuretara bizilagunen interes orokorrak edo arlokakoak defendatzeko udalerrian eratutako elkarte eta erakundeen ordezkariak dei daitezke. Era berean, bilkuretara joan daitezke informazio-batzordeak egin behar duen irizpenean zuzeneko interesa duten erakunde edo pertsonak ere, aurretik eskatzen badute.

4.- Informazio-batzordeak iraunkorrak eta bereziak izan daitezke.

5.- Informazio-batzorde iraunkorrak izaera orokorrez eratzen dira eta Udalbatzak aztertu beharreko gaiak beraien artean banatzen dira. Batzorde hauen hasierako kopurua eta izena, edota agintaldiaren bitartean egon daitezkeen gainerako aldaketak, alkate edo batzarburuak proposatuta eta Udalbatzarrak hartutako akordio bitartez egingo dira. Ahal den neurrian udal zerbitzuak osatzen dituzten arlo handien kopuru eta izenarekin bat etorriko dira.

6.- Informazio-batzorde bereziak dira Udalbatzak gai zehatz bat lantzeko sortutakoak, gai horren edonolako ezaugarri bereziengatik.

Batzorde hauek automatikoki indargabetu egingo dira, eratu ziren gaiari buruzko irizpena hartu edo txostena egin ondoren, baldin eta Batzordea sortu zuen Udalbatzaren erabakiak besterik erabakitzen ez badu.

7.- Informazio-batzordeetako eguneko aztergaien zerrenda udaletxeko iragarki-taulan erakutsiko da, bai eta Udalaren web-orrian ere. Halaber, eskatzen duen orori emango zaio.

8.- Informazio-batzordeak udal bakoitza eratzeko bilkuran bertan Udalbatzak erabakitako egunean bilduko dira. Hala ere, Udalbatzak bilkura horren ondoren ere alda ditzake bileren datak. Dena den, hurrengo zenbakian esaten dena alde batera utzita, alkateak eguneko aztergaien zerrenda egin aurretik, informazio-batzordeek gaiok aztertu eta horiei buruzko irizpena emango dute.

9.- Gaia presakoa bada, alkateak horrela adierazi duelako eta ondoren Udalbatzak baieztatu duelako, informazio-batzordeen irizpena alde batera utz daiteke.

10.- Alkateak eta Tokiko Gobernu Batzarrak informazio-batzordeei aholkua eska diezaiekete, edozein gaiari buruz ebatzi aurretik.

#### **54. artikulua**

Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek informazio-batzordeetan parte hartzeko eskubidea dute, talde horietako zinegotzien presentziarekin.

Batzorde bakoitza osatzeko, Udalbatzan ordezkariak duten talde politiko guztien arteko kopuruaren proportzioari egokitzuz egingo da.

Talde bakoitza ordezkatzuz batzordeetan parte hartu eta Udalbatzaren kide bakoitza zehazki zein batzordetan atxikiko den jakinarazteko, talde horretako bozeramaileak alkateari idatzi bat bidaliko dio, eta Udalbatzari idatzi horren berri emango zaio. Titular bakoitzeko ordezkari bat ere izenda daiteke.

#### **55. artikulua**

Alkatea edo Udalburua, informazio-batzorde guztietako berezko burua da; hala ere, jarduneko buruzagitza Udalbatzaren beste edozein kideren esku utz dezake, batzordeak berak eskatuta, bertan egindako hautaketaren ondoren.

Era berean, ordezkari bat izendatu ahal izango du batzorde bakoitzeko jarduneko buruzagitza hutsik geratu, bertaratu ez, gaixorik egon edo eragozpenen bat gertatuz gero.

Informazio-batzordeetako idazkari-lanak Udalbatzako Idazkaritza Nagusiaren titular denak egingo ditu, edota Alkatetzak izendatutako funtzionarioek, hark proposatuta. Biek ala biek alkatearen ordezkari gisa jardungo dute.

#### **56. artikulua**

1.- Informazio-batzordeen bileren emaitzak irizpen, proposamen edo antzekoren bitartez jasoko dira, baina inoiz ezingo dute akordio izaerarik eduki.

2.- Informazio-batzordeak irizpena eman aurretik, arlo horretako unitate administratibo edo funtzionario arduradunaren txostenaren berri izan beharko du.

3.- Irizpenak hartzeko bertaraturik gehiengo soila nahikoa izango da, berdinketak batzordeburuak erabakiko ditu kalitatezko botoarekin eta irizpen hori eman duen bilkuraren buruak sinatuko du.

4.- Batzordekideren bat irizpenaren aurka badago, bere aurkako botoa jasota gera dadila eska dezake, edo udalbatzarraren bilkuran defendatzeko boto partikularra eman dezake.

**57. artikulua**

Jarritako orduan ez bada gehiengoa azaltzen, bilera handik ordubetera egingo da, bertaratutakoekin, gutxienez 3 kiderekin.

**58. artikulua**

Informazio-batzordeen bilera bakoitzeko akta egingo da 46. artikuluan adierazitako betebeharren arabera, eta horri onartu diren irizpenak gehituko zaizkio, baita haiei egindako boto partikularrak ere.

**59. artikulua**

Alkateak gai zehatz bati buruzko azterketa bi batzorde edo gehiagori batera eska diezaieke, prozedura ez gehiegi luzatzearen.

**VI. KAPITULUA**  
**KONTUEN BATZORDE BEREZIA**

**60. artikulua**

1.- Kontuen Batzorde Berezia, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 116. artikuluan ezartzen duen moduan, nahitaezkoa da eta izaera bereziko informazio-batzordea da. Udala osatu eta hurrengo hilabetean eratuko da, agintaldi bakoitzaren hasieran.

2.- Udal taldeetako zinegotziek osatuko dute, eta Alkateak izendatuko ditu talde bakoitzak bere kidea proposatu ondoren. Alkatea edo bere ordezkari izendatzen duen zinegotzia izango da batzordearen buru.

3.- Urteko kontuak udaleko Kontuen Batzorde Bereziaren jakinean jarriko dira ekainaren 1a baino lehen. Batzorde hau Udalbatza osatzen duten talde politikoetako kideek osatuko dute. Kontuak jendaurrean jarriko dira Udalbatzak onartu aurretik, horien aurka erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egiteko. Hori guztia, kudeaketa ekonomikoan edota onartutako kontuetan, irregulartasunak daudela kontu-auzitegian salatze ahalmena baztertu gabe.

4.- Kapitulu honetan aurreikusi ez den guztian informazio-batzorde iraunkorretako funtzionamenduari buruzko xedapenak aplikatuko dira.

## VII KAPITULUA BOZERAMAILEEN BATZORDEA

### 61. artikulua

Bozeramaileen batzordea Udalbatzan ordezkariak duten talde politiko bakoitzeko bozeramaileek osatuko dute, eta alkatea izango du buru.

Hala ere, landu beharreko gaiak horrela eskatuz gero, bozeramailea bere taldeko beste zinegotzi batek ordezkari izan dezake eta/edo lagun diezaiolako, haren iritzira.

Udal Hauteskundeetan koalizioan parte hartu duten bi alderdi politikok edo gehiagok udal talde bakarra osatzen badute, koalizioko bozeramaileari, taldea osatzen duen beste alderdi politikoko, edo politikotako, ordezkari batek, edo batzuek, lagun diezaiokete.

Organo horren zeregin nagusia informatzea eta politika maila goreneko eztabaida dira, baita Udalerako edo udal jardueran garrantzi handia duten gai haietan parte hartzea ere.

Bozeramaileen batzordea balioz eratuko da udal talde politikoen erdia gehi bat bertaratu direnean, edo Udalbatzaren gehiengo osoa ordezkari dutenean.

Bozeramaileen batzordeak eduki politikoa duten gaien (mozioak, etab.) berri izango du, Udalbatzaren bilkuran, hala badagokio, eztabaidatu eta bozkatu aurretik.

Bozeramaileen batzordean landutako gai guztietatik Udalbatzaren eguneko aztergaietan zein sartuko diren zehazteko, beharrezkoa izango da gutxienez bilkurara bertaraturako bi udal talderen aldeko botoa, edo zinegotzien 1/3 ordezkaria.

Batzordearen erabakiak gehiengoaren botoz hartuko dira; beti ere Udalbatzarrean udal talde bakoitzak duen kopuruaren proportzioaren arabera izango da.

### III. TITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### I. KAPITULUA OROKORRAK

###### 62. artikulua

Bilkura guztiak udaletxean egingo dira, edo ezinbestean horretarako egokitutako eraikinean, eta leku hori aktan jasoko da.

###### 63. artikulua

Bilkura guztiak hasitako egun berean bukatu beharko dira.

###### 64. artikulua

Alkateak ziurtatuko du Udalbatzaren eta Tokiko Gobernu Batzarraren deliberazioak erregulartasunez egiten direla; eta bidezko arrazoiak egonez gero, edozein unetan moztu edo bertan behera utz ditzake.

###### 65. artikulua

Administrazio bidea amaitzen dute ondoko organo eta agintarien erabakiek:

- a) Udalbatzar, Tokiko Gobernu Batzar eta alkatearen edo batzarburuaren ebazpenek; arloko Lege batek Estatuko edo Autonomia Erkidegoko Administrazioaren geroko berrespena eskatzen duen ezohiko kasuetan izan ezik; edo hauen aurrean errekurtsorik jartzen bada indarrean dagoen legedian aurreikusten diren kasuetan.
- b) Alkateak, batzarburuak edo beste organo batek eskuordetzan eman ondoren, agintariak edo organo txikiak ebatzitakoek; hauek administrazio bidearekin bukatzen badute.
- c) Bestelako agintari edo organok emandakoak, lege xedapen batek horrela jartzen duenean.

###### 66. artikulua

Udalbatzaren menpeko organo eta entitateen artean sor daitezkeen eskurantzai buruzko gatazkak honela konponduko dira:

- a) Udalbatzak konponduko ditu, kide anitzeko organoen, hauen kideen edo udal entitate txikien arteko gatazkak direnean.
- b) Alkateak gainerako kasuetan.

### **67. artikulua**

1.- Idazkariak udal akordio guztiak betetzeko aginduak jakinaraziko ditu, akta-zirriborroaren bukaeran alkateak sinatu aurretik, eta ekintza guztiak nola betetzen diren behatuko du.

2.- Botere publikoei igorri beharreko jakinarazpenak alkateak sinatuko ditu, eta akordioak edo dekretuak helaraztekoak idazkariak, eta Erregistro Orokorreko irteerako zigilua eramango dute.

## **II. KAPITULUA EUSKARAREN ERABILERA**

### **68. artikulua**

Euskadiko berezko hizkuntza erabiltzeko eskubidea bermatzeko, ondorengoan jasotako aurreikuspenak beteko dira: Zarauzko Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera normaltzeko Arauak ematen dituen Udal Ordenantza (GAO 129 zk., 1994ko urriaren 20koa; 119 zk., 1998ko ekainaren 26koa; eta 94 zk., 2003ko maiatzaren 21koa).

### **69. artikulua**

Udalbatzako idazkaria gai ez bada bere funtzioak euskaraz betetzeko, Udalbatzak pertsona egoki bat izendatuko du hari laguntzeko, eta pertsona horrek sinatuko du transkripzioa, baldin egiten bada. Hala eskatuz gero, idazkariak ziurtagiriak egingo ditu, transkripzioaren araberakoak direla ohartarazita.



### III. KAPITULUA AGIRIAK

#### 1. atala. Egintzen konstantzia

##### 70. artikulua

1.- Akordio bat ez da baliozkotzat joko bera erabaki zeneko aktan esplizituki eta behin betikoz jasotzen ez bada. Akordioaren bat ez-azaltzea konpon daiteke. Horretarako idazkariak dokumentu idatzia aurkeztuko du, eta Udalbatzak onartu beharko du, akordioa hartu zen bilkuraren ondorengoaren akta itxi aurretik.

2.- Aurreko zenbakian esandakoagatik ere, akordioen ziurtagiriak eman ahal izango dira, akordio horiek jasotzen dituzten aktak onartu baino lehen, kasu honi dagokion ohar edo salbuespena eginik eta dagokion akta onartzetik letorkeenaren zain.

##### 71. artikulua

1.- Kide anitzeko organoen akordio guztiak eta pertsona bakarreko organoen ebazpenak baliozkoak izateko, beraiei dagokien Akta- eta Ebazpen-liburuetan jasoko dira.

Liburu berezituak egongo dira ondorengoentzat:

- Udalbatzarraren bilkuren aktak
- Tokiko Gobernu Batzarraren aktak
- Informazio-batzordeetako aktak
- Alkatearen Ebazpen eta Dekretuak
- Zinegotzi ordezkarien ebazpenak, alkateak emandako eskuordetzaren bitartez erabakitakoak.

2.- Liburu horiek orri mugikorak izango dituzte eta ondorengo arauen arabera egingo dira:

- 1.a. Beti ere, Euskal Autonomia Erkidegoko paper zenbakiduna erabili beharko da.
- 2.a. Liburu bakoitzerako eskuratutako paperean, orriz orri zenbatutakoan, idatziz jasoko da Udalbatzako alkateak eta idazkariak sinatutako irekitzeko eginbidea; eta lehen orrian adieraziko dira atalak, zenbakiak eta akordio edo ebazpenak transkribatzen hasi diren eguna.
- 3.a. Akta onartu ondoren, idazkariak ordenagailuko inprimagailuaren bitartez transkribatuko du, zuzenketa edo ezabaketarik gabe, nahi gabe gerta daitezkeenak salbu, eta ordena zehatza jarraitzen duten orriei erantsiko die.

3.- Akta- eta Ebazpen-liburu guztiak Idazkaritza Orokorrean jasoko dira, idazkariaren ardurapean. Liburu horiek ezingo dira inola ere udaletxetik atera. Edukiak ezagutu nahi badira, gordeta dauden tokian bertan egingo da kontsulta edo ziurtagiriak edo lekukotzak bidaliz.

#### **72. artikulua**

Kide anitzeko organoko kide batek bere azalpena hitzez hitz aktan jasotzea nahi badu, idatziz egin beharko du, eta batzarburuak edukia ez gehiegi luzatzea eska diezaioko, baldin eta orri baten bi aldeak baino luzeagoa bada.

#### **73. artikulua**

Akten kopia bat bidaliko zaie talde politiko guztiei; hala ere ale bat beti Idazkaritzan geratuko da.

### **IV. KAPITULUA ERREGELAMENDUAK EGITEKO AHALMENA**

#### **74. artikulua**

1.- Udalak erregelamenduak egiteko ahalmena Ordenantzen bitartez gauzatuko du, eta Alkatetzak Bandoak eman ditzake.

2.- Ordenantzek, legeak jartzen dituen mugen barruan, udalerriko ekintzak arautuko dituzte, auzokideen behar eta helburuak betetzen lagunduko duten gai guztietan.

#### **75. artikulua**

1.- Erregelamenduak, Ordenantzak eta gainerako xedapen orokorrak egiteko, horien legezotasuna, zuzentasuna eta egokitasuna bermatzeko azterketa eta txostenekin hasiko dira.

2.- Araua egiteko ekimena duen mozio edo proposamenarekin batera, araua egiteko prozesua ezagutzeko edo berori interpretatzeko interesgarriak izan daitezkeen irizpen, kontsulta eta datu eta dokumentu guztiak jasoko dira.

3.- Arauaren proiektuarekin batera, gai horri buruzko aurreko xedapen edo xedapenen gaineko txostenak jasoko dira, baita erabat edo zati batean bederen indargabetutakoak ere.

4.- Idazkariak legezketasunari buruz informatuko du, edo 1. zenbakiaren arabera egindako txostenarekin ados dagoela adieraz dezake, baldin eta txosten hori zuzenbidean lizentziatutako pertsona batek sinatu badu.

5.- Onespena eta aldaketa ondorengo urratsak jarraituz egingo da:

- a) Udalbatzaren hasierako onespena.
- b) Interesdunei iradokizunak eta oharrik aurkezteko gutxienez hogeita hamar eguneko epea eman informazio publiko eta entzunaldien bidez.

Interesdunei entzunaldia zuzenean eman dakieke edo xedapen honek eragiten dien eta Legeak onartutako erakunde eta elkarteen bitartez.

- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta Udalbatzaren behin betiko onespena.
- d) Iradokizun edo oharrik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen akordioa behin betiko onartuko da.

## **76. artikulua**

1.- Alkateak aplikazio orokorreko Bandoak eman ditzake, gizalege eta gobernatzekoak izango dira, udalerriko bizitza hobeto zuzentzeko.

2- Bandoak aldizkakoak izan daitezke, aurrez ezarritako datetan argitaratzen badira, eta indarrean dauden izaera orokorreko xedapenak betetzea gogorarazteko besterik ez badira; eta presakoak, aurretik jakin ezin diren egoerei erantzutekoak.

3.- Halaber, alkateak goi-mailako erakundeek emandako xedapenak ere jendaurrean jar ditzake, eta kasu horretan mezuan xedapena zein agintarik eman duen adieraziko da.

4.- Bandoak orrialde bakar batean inprimatuko dira eta betiko lekuetan jarriko dira, herritar guztiek ezagut ditzaten; informazio orokorreko egunkarietan eta, dena den, udaleko iragarki-taulan ere argitaratuko dira.

**V. KAPITULUA**  
**ESKURANTZAK ESKUORDETZAN EMATEA**

**77. artikulua**

1.- Eskuordetzak argi adieraziko du kasu bakoitzean zein ahalmen ematen dituen, eta denboran mugarik ez duela ulertuko da, bertan besterik adierazten ez bada, bederen.

2.- Alkateak Udalbatzako kideei eskuordetzan emateko egintza udaleko iragarki-taulan argitaratuko da, eta alkateak horrela iritziz gero, egokiak iruditzen zaizkion komunikabideetan beharrezko zabalkundea emango die.

**78. artikulua**

Hala eta guztiz ere, eskuordetza eman duen organoak berak eskuordetza baliogabetu dezake, eta eskuordetzan emandako eskumenak berriz ere bere gain har ditzake, horiek emateko beharrezkoak diren bestelako baldintzarik gabe.

## IV. TITULUA

### UDALBATZAKO KIDEEN ETA UDAL TALDEEN ESTATUTUAK

#### I. KAPITULUA

##### ZINEGOTZI KARGUA ESKURATZEA ETA GALTZEA

#### 79. artikulua

1.- Zinegotzi kargua eskuratzeko beharrezkoa da:

- a) Hautatua izatea ondorengoekin bat etorritz: ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren III Titulua, Hauteskunde Erregimen Orokorra ezartzen duena; eta Lurralde Historikoko Erakundeek kasuan-kasuan ematen dituzten arauak jarraian datozen bi artikuluek ematen dioten ahalmenari esker: Abenduaren 18an, 3/1979 Lege Organiko bidez onartutako Eukal Autonomia Estatutuaren 37.3.c) artikulua eta, Eusko Jaurlaritzako 27/1983 Legearen 7.a).2 artikulua, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego eta bere Lurralde Historikoetako Foru Erakundeetan parekoak diren erakundeen arteko harremani buruzkoa.
- b) Erregelamendu honetako 85. artikuluan jasotzen den aitorpena egin.
- c) Bere kargua eskuratu.

2.- Aurreko zenbakiko a) letrak adierazten duenarekin bat etorritz, hautetsia dela egiaztatzeko, Idazkaritzak beharrezko neurriak hartuko ditu, Adinaren Mahaiak bere esku izan ditzan, Erregelamendu honetako 9.3 artikulua ezartzen duen moduan, zinegotziak izendatzeko aktaren ziurtagiriak; zinegotziek beren egiaztgutunak aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

Horretarako, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari eskatuko dio aldarrikapen-akta bidal dezala, aurrez aipatutako 5/1985 Lege Organikoaren 108.4 artikuluekin bat etorritz.

#### 80. artikulua

1.- Zinegotzi izatea bateraezina da ondorengo kasuekin:

- a) Udaltzaren kredituengatik beraien aurka ezarritako premiamendu agindua jaso eta zuzeneko zordun edo zordun subsidiarioak diren udaltzako kideak.
- b) Abokatu edo prokuradore izanik, Udaltzaren aurkako prozedura judizial edo administratiboetan aldeetako bat zuzendu edo ordezkatzan dutenean. Ordenamendu juridikoa hausteagatik udaltzako kideen egintzak inpugnatzeko duten eskubidea erabiliz jartzen direnean izan ezik.

- c) Udaltzaren edo bere mendeko erakunderen baten zerbitzuan sartzen direnak bertako pertsonal moduan.
- d) Udalerrian jarduten duten Probintziako edo Tokiko Aurrezki Kutxetan zuzendari orokor edo antzeko izendatzen dituztenak.
- e) Udaltzaren edota bere mendeko erakunde baten kontura erabateko edo zatikako finantziarioa duten kontratuen kontratista edo kontratistaorde direnak.

2.- Bateriaezintasun egoera baten aurrean, erasandakoek erabaki beharko dute zinegotzi izateari uko egitea edota, aurreko atalean ezarritakoaren arabera, bateriaezintasuna sortu duen egoera uztea.

3.- Bateriaezintasunaren arrazoia zenbaki honetako c) letran jasotzen dena bada, zinegotzi kargua aukeratzen duen funtzionario edo langilea zerbitzu berezien egoerara pasako da edo subsidiarioki beren lan-hitzarmenetan aurreikusten dena, baina beti ere, bere lanpostua gorde egingo dela ulertuko da.

## **81. artikulua**

1.- Zinegotzi kargua galdu egingo da:

- a) Hautaketa edo aldarrikapena baliogabetzen duen epailearen erabaki irmoz.
- b) Heriotzagatik, espainiar nazionalitatea galtzeagatik edo epailearen erabaki irmoak ezintasuna aitortzen badu.
- c) Agintaldia amaitu delako.
- d) Karguari uko egiteagatik.

2.- Zinegotziak karguari uko egin diezaioke ahoz Udaltzaren aurrean, edo idatziz, baina azken kasu horretan bere erabakia berretsi egin beharko du haren aurrean. Bi kasuetan Udaltzak jakinaren gainean dagoela adieraziko du eta uko egin izanaren berri Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari emango dio, dagokion zerrendan jarraian datorren hautagaia zinegotzi izendatzeko.

## **82. artikulua**

1.- Udaltzako kideak zerbitzu berezien egoeran gelditzen dira honako kasuetan:

- a) Udaleko edo bere entitate edo mendean dituen erakunde bateko funtzionarioak direnean.

- b) Beste herri administrazioen bateko karrerako funtzionarioak badira eta udalean ordaindutako eta erabateko arduraldiko karguan ari badira.

Bi kasuetan udalak ordainduko ditu mutualitateen kotizazioak.

### 83. artikulua

1.- Alkate eta zinegotziek, Legeak ezarritako bateraezintasun arrazoiei kalterik egin gabe, ezingo dute gai baten eztabaida, bozketa, erabaki eta exekuzioan parte hartu - gaia eztabaidatu eta bozkatzen denean udal areto edo gelatik irten beharko dute-baldin eta azaroaren 26ko 30/92 Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitako kausaren bat aurkitzen denean.

2.- Abstenitzeko arrazoiak ondorengoak dira:

- a) Landu behar den gaian interes pertsonala izatea, edo beste gai baten ebazpenak eragina izan badezake beste gai horren ebazpenean; elkarte edo entitate interesdunaren administraria izatea, edo interesdunen batekin auzitan den gairen bat izatea.

Ustezko arrazoa "landu behar den gaian interes pertsonala izatea..." bada, interesak berea, partikularra edo zuzena izan behar du edo Udalbatzako kideen mandatu-emaila edo senideena, eta ez interes hiritar orokorra.

- b) Laugarren mailako odol-ahaidetasuna edo bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna badago interesdunen batekin, entitate edo elkarte interesdunen administrariekin eta prozeduran parte hartzen duten aholkulari, lege ordezkari edo agintariekin, edota bulego profesional bera duenarekin edo hauekin elkartuta egotea aholkatu, ordezkatu edo agintzeko helburuarekin.
- c) Aurreko atalean aipatutako pertsonaren bat lagunmina edo etsai jakina izatea.
- d) Landu behar den prozeduran peritu edo lekuko bezala parte hartu izana.
- e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona natural edo juridikoarekin zerbitzu harremana izatea, edota azken bi urtetan edozein motako eta egoera eta leku desberdinetan zerbitzu profesionala eman izatea.

3.- Abstenitzeko arrazoiren bat duten udalbatzako kideen jarduerak ez du esan nahi, berak parte hartutako ekintza guztiak baliogabetzen dituenik. Horrela gertatuko da bere jarduera erabakigarria izan denean bakarrik.

4.- Zinegotzi bat aurrean aipatutako egoeran badago, alkateak espediente guztian ez parte hartzea eska diezaioke.

5.- Horrela tokatzen zaion kasuetan ez bada abstenitzen erantzunbeharrean jarriko da.

6.- Aurreko ataletan azaldutakoa ez da beteko Udaltzako kideren batek bere karguan izandako jarduera eztabaidatzen ari direnean. Kasu horretan bertan egon eta defendatzeko eskubidea izango du.

7.- Udaltzak kontu handia izango du legez zigor daitezkeen jokaerekin; hala nola, funtzionario-eroskeria edo influentzia-trafikoarekin.

## II KAPITULUA TALDE POLITIKOAK

### 84. artikulua

1.- Udaltzako kideak, Udaltzan izan dezaketen jardueraren arabera, talde politikoetan eratuko dira; ondorengoak izan ezik: hauteskundeetan hautatuak izan ziren talde politikoaren hautagai-zerrendako partaide ez direnak edo jatorrizko taldea utzi dutenak. Hauek atxiki gabeko Udaltzako kideak izango dira.

2.- Talde politikoa osatzeko nahikoa izango da zinegotzi bakarra izatea.

3.- Talde politikoak eratzeko alkateari idatzia zuzenduko zaio, kide guztiek sinatua, eta Udaleko Idazkaritza Orokorrean aurkeztuko da Udala eratu eta biharamunetik kontatzen hasita bost egun balioduneko epean; hala ere, beranduago eratu daitezke.

Idatzi berean taldeko bozeramailea nor izango den jasoko da; ordezkioak ere izendatu ahal izango dira.

Halaber, bozeramaileek alkateari idatziz jakinaraziko diote zinegotzi titular eta ordezkioak zein informazio-batzorde iraunkorretan atxikitzen diren, baita gainerako kide anitzeko organoetako atxikipena ere. Horretarako, Udala eratzeko egunaren ondoren egingo den udaltzaren aparteko bilkuraren egunetik kontatzen hasi eta 6 egun balioduneko epea izango dute.

4.- Udaltzari honakoen berri emango zaio, hori guztiaren jakitun izan dadin: Talde politikoaren eraketa eta bertako partaide eta bozeramaileak nortzuk diren, baita kide titular eta ordezkioak zehazki zein informazio-batzordeetan atxikita dauden ere.

5.- Gerora talde politikoetako bozeramaileek alkateari idatziz jakinaraziko dizkiote, bai taldearen izenean egindako aldaketak, bai titular edo ordezkioen izendapenetan egindakoak, eta beti ere informazio-batzordeen eta Udaltzaren bilkuren ohiko funtzionamenduan eraginik sortu gabe. Taldearen izena aldatzen den kasuetan, Udaltzari berehala erakutsiko zaio aurkeztutako idatzia.



6.- Zinegotzi batek, talde politiko batean atxikita egonda ere, eztabaidan parte hartu ahal izango du, udal organoen funtzionamendurako beharrezkoak diren arauak ezarritako mugak errespetatzen badira.

7.- Talde politikoek bulego edo lokal bat izango dute, beren kontura elkartzeko eta herritarrak hartzeko, eta alkateak, edo Barne-araudiko arduraduna den udalbatzako kideak, haien eskura ipiniko du bitarteko materialen gutxieneko azpiegitura.

8.- Udal talde politikoek Udaleko lokalak erabili ahal izango dituzte herritarren interes kolektibo, orokor edo arlokakoak defendatze aldera elkarrekin bilkurak eta lansaiok egiteko.

Alkateak, edo barne-araudiko arduradun den udalbatzako kideak, Udalbatza osatzen duten taldeek lokalak erabiltzeko araubide zehatza finkatuko du; horretarako kontuan izango du funtzionatzeko beharrezkoa den koordinazioa, eta talde bakoitzaren ordezkari politikoak.

Bilera hauek ezingo dira egin Udalbatzaren bilkura edo Tokiko Gobernu Batzarrarena egiten ari diren aldi berean.

9.- Udalbatzak, bere urteko aurrekontuen kontura, talde politikoei diru-kopuru bat emango die; diru horretatik kopuru bat finkoa izango da, talde guztientzat berdina; eta beste kopurua aldakorra, talde horietako bakoitzak duen kide kopuruaren arabera. Beti ere, orokorrean ezarritako muga barruan. Diru hau ezingo da erabili Udalbatzaren zerbitzura dagoen edozein motako pertsonalaren ordainsari moduan, edo ondare-izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak erosteko.

Atxiki gabeko udalbatzako kideen eskubide ekonomiko eta politikoak ez dira izango jatorrizko taldean egonda izango lituzketenak baino handiagoak.

10.- Talde politikoek aurreko paragrafoan esandako diru-kopuruaren kontabilitate zehatza eramango dute, eta Udalbatzaren esku jarriko dute horrek eskatzen dien bakoitzean.

11.- Udal talde politiko bateko zinegotzien gehiengoak hauteskundeetan parte hartzeko hautagai-zerrenda aurkeztu zuen talde politikoak utzi edo bertatik bidali badituzte, talde politiko horretan bertan gelditzen diren zinegotziak izango dira talde politiko horretako partaide ondorio guztietarako. Hala ere, Udaleko idazkaria hautagai-zerrenda aurkeztu zuen talde politikoaren legezko ordezkariari zuzendu ahalko zaio adierazitako egoeraren ziurtapena jakinaraz dezan.

**III. KAPITULUA**  
**BATERAEZINTASUN ARRAZOIAK ETA ONDAREA AITORTZEA**

**85. artikulua**

1.- Udaltzako kide guztiek aitortza egingo dute bateraezintasuna sor dezaketen arazoien gainean eta diru-sarrerak ematen dizkieten zein eman diezazkieketen jardura guztiei buruz.

Era berean, bere ondare-ondasunari buruzko aitortza ere egin beharko dute, bai eta edonolako sozietateetan duten partaidetzari buruzkoa ere. Horrekin batera partaide diren sozietateen informazioa emango dute, bai eta errenta, ondare eta, halakorik balego, sozietateei buruzko zergen likidazioarena ere.

2.- Aitortza horiek Udaltzako onartutako ereduaren arabera egingo dira, eta karguaz jabetu aurretik, kargua uzten denean, agintaldia bukatzean eta gertakariak aldatzen diren bakoitzean egingo dira.

3.- Aitortza horiek udaleko Idazkaritza Nagusian eratuak Interesaren Erregistroan idatzita jasoko dira, eta publikoak izango dira:

- a) Bateraezintasuna sor dezaketen arazoien gainean eta diru-sarrerak ematen dizkieten zein eman diezazkieketen jardura guztiei buruzko aitortza Udalean bertan eratuak Jardueren Erregistroan inskribatuko da.
- b) Ondasun eta ondare-erakundearen aitortza Tokiko Erakunde bakoitzaren Ondare-ondasunen Erregistroan inskribatuko da.

4.- Ondasun eta jardueren urteko aitortzak urtero argitaratuko dira, eta beti ere, agintaldia bukatzen denean, Udal estatutuak ezarritako baldintzak beteta.

5.- Betetzen duten karguaren eraginpean, beren segurtasun pertsonala zein beren ondasun edo negozioena, beren senideena, bazkideena, enplegatu zein berekin harreman ekonomiko-profesionalak dituzten pertsonena mehatxatuta ikusten duten udaltzako kideek interesaren aitortzak egin ditzakete probintziako diputazioko idazkariaren aurrean zein, kasua beste hau bada, bakoitzaren autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean. Aitortza horiek Interesaren Erregistro Berezian jasoko dira, horretarako sortuko baita esandako erakundeetan.

Kasu horietan, udaltzako kideek ziurtagiri soil eta laburra emango diote bakoitzaren udaltzako idazkariari beren aitortzak egin dituztela eta aurreko paragrafoan aipatutako Interesaren Erregistro Berezian jasota daudela egiaztatzeko, erregistroaren ardura duen funtzionarioak eginda.

**IV. KAPITULUA**  
**UDALBATZAKO KIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

**86. artikulua**

Udalbatzari dagokionez, bere kideek honako **eskubideak** dituzte, gainerakoei kalterik egin gabe.

- a) Udalbatzaren bilkuretan parte hartu eta, oro har, kide anitzeko organoetan ere bai.
- b) Udal aurrekontuaren kontura, tokatzen zaizkion ordainsari edo kalte-ordainak jasotzea.
- c) Bere funtzioak ongi betetzeko beharrezkoa duen dokumentazio eta, oro har, informazioa eskura izatea.
- d) Bere aurkako botoarekin onartutako akordioak inpugnatzea.

**87. artikulua**

Udalbatzaren bilkuretan parte-hartzeari dagokionez Erregelamendu honen 21. artikulutik 28.era bitartean ezartzen duenarekin bat etorriko da.

**88. artikulua**

1.- Tokiko Udalbatzako kideek ordainsariak jasoko dituzte bere karguetan zatiko edo erabateko arduraldiz jarduten dutenean. Kasu horretan Gizarte-segurantzaren Araubide Orokorrean alta emango zaie, eta Udalbatzak hartuko du bere gain enpresa-kuoten ordainketa.

Ordainsari horien kasuan, horiek jasotzea bateraezina da administrazio publikoen eta administrazio horien menpeko ente, erakunde eta enpresen aurrekontuen konturako beste inolako ordainsariak hartzearekin; bateraezina da, halaber, beste jarduera batzuk garatzearekin ere; eta hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legeko baldintzetan.

2.- Batzarburu edo batzarburuordetzako eginkizunak egiteko, zein eskuordetzako eginkizunak betetzeko, arduraldi partzialeko karguak betetzen dituzten Udalbatzetako kideek, baita halako dedikazioa eskatzen duten erantzukizunak betetzen dituztenek ere, horretara benetan emandako denborari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte; kasu horretan horiei ere alta emango zaie Gizarte Segurantzako araubide orokorrean, kontzeptu horretarako, eta udalbatzek beren gain hartuko dute enpresaren parteko kuotak ordaintzea, aurreko artikuluan xedatutakoa salbuespen dela. Ordainsari horiek inola ere ezin izango dituzte gainditu Estatuko aurrekontu orokorren legeetan finkatutako mugak, hala bada.

Administrazio publikoetako eta administrazio horien menpeko ente, erakunde eta enpresetako langile diren udalbatzarreko kideek bakoitzak bere lantokiko lanalditik kanpo eginkizunak arduraldi partziales betetzeagatik jaso ditzaketen ordainsariak, abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 5. artikuluan aipatutako baldintzetan baino ezingo dira izan, artikuluko honetako seigarren paragrafoan xedatutakoaren aurka jarri gabe.

3.- Erabateko arduraldiz arituko dira bere karguan alkatea eta Udalbatzarrak agintaldi bakoitzaren hasieran erabakitzen dituen bertako kideak. Halaber, Udalbatzarrak erabakiko du zein kargu arituko diren zatikako arduraldiz, baita hauen ordainsariak ere, Aurrekontuak gauzatzeko Oinarrietan ezarritakoarekin bat etorriz.

4.- Bere funtzioak betetzean, udal taldeko bozeramaileak bere taldea ordezkatzeko eskubidea aitortua du eta hurrengo gutxieneko irizpideen arabera ordainsaria jasotzea ere bai:

- Udal taldeak 7 zinegotzi baditu, bozeramailea liberatu egingo da erabateko arduraldiz, eta EUFALEBaren 22 ordainketa-maila izango du.
- Udal taldeak aurreko paragrafoan ezarritakoak baino zinegotzi gutxiago baditu, bere bozeramaileak zatiko liberazioa izango du eta ordainsaria berak ordezkatzeko duen zinegotzi kopuruaren arabera izango da; hau da, beharrezko zinegotzi kopurua edukitzeagatik, aurrez adierazitako arduraldi osoko araubideko ordainsaria %100eko erreferentzia bada, zatiko ordainsaria aurreko erreferentzia datuaren arabera bere taldearen kokaleku erlatiboari dagokion portzentajearen arabera izango da.
- Talde politikoek bozeramaile bakoitzeko jasotzen duten ordainsaria gehienez talde politiko bereko bi zinegotziren artean banatu ahal izango dute.

5.- Ordainsari horiek jasotzea bateraezina izango da, administrazio publikoen eta bere mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen gain egin daitezkeen bestelako ordainsariekin. Halaber, arduraldi osoko edo zatikoengatik ordainsaririk jasotzen bada Udalbatzaren batzorde edo kide anitzeko organoetara joateagatik ez da dietarik ordainduko. Izan ere, gai honetaz bateraezintasunei buruzko legerian ezarritakoa beteko da.

6.- Udalbatzaren gainerako kideek agintaldi bakoitzaren hasieran Udalbatzarrak erabakitzen dituen kopuru eta baldintzen arabera kalte-ordainak jasoko dituzte.

7.- Bidaia gastuak udalerritik kanpora mugitu beharreko zerbitzuetan bakarrik ordainduko dira.

## 89. artikulua

Informatzeko duten eskubidea ondoko arauekin bat etorriz egingo da:

- a) Zinegotzi guztiek izango dute eskubidea, alkateari eskaera eginez, bere funtzioak betetzeko beharrezkoak dituen eta Udalbatzako zerbitzuetan dauden aurrerakin, datu eta informazio guztia jasotzeko.
- b) Espediente eta dokumentuak ezin izango dira udaletxetik atera.
- c) Udalbatzarrak ezagutu eta erabaki beharreko gaiak badira, azterketa Idazkaritza Nagusian egingo da, Erregelamendu honetako 35. artikulua dioenaren arabera.

Udalbatzako gainerako organoek jada ezagututako gaiak badira, erabakia hartu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita aztertu ahal izango dira.

- d) Aurreko puntuan jaso ez den dokumentazioaren azterketa eskatzen bada, idatziz egingo da eskaera.

Dokumentazioa, baimena eman eta gehienez bi egun balioduneko epean emango zaio, eta jasotzen den lekuan bertan, artxiboan edo zinegotzien bulego edo aretoan aztertu ahal izango da, behar-beharrezko denboran bakarrik eta inoiz ez hamar egun baliodun baino gehiagotan.

Baimenik ematen ez bada, hamar egun balioduneko epean jakinaraziko da eta arrazoitua izango da.

## 90. artikulua

Udalbatzako kideak legitimatuta daude administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean bere aurkako botoarekin onartutako akordioak inpugnatzeko.

## 91. artikulua

1.- Zinegotziak alkateari jakinaraziko dio edo, hala badagokio, bera partaide den informazio-batzordeko buruari, baldin eta zortzi egun baino gehiagoz udalerritik aldentuko bada, eta zehaztu egingo du, aldenteak ustez zenbat denbora iraungo duen.

2.- Zinegotziek eskubide eta obligazioa dute beraiek partaide diren kide anitzeko udal organo guztien bilkuretara (erabakitzaile edo informatzaileetara) joateko; baldin eta eragotziko dion bidezko arrazoirik ez bada.

Baldin eta zinegotzi batek bilkuretara bertaratu ezin badu, idatziz jakinarazi beharko du bilkura hasi aurretik, informazio-batzordeko edo dagokion departamentuko

buruari, baldin informazio-batzordearen bilera bada, eta alkatearen idazkariari, baldin Udalbatza edo Tokiko Gobernu Batzarra bada.

Udalbatzako kide batek bera partaide den kide anitzeko organo baten bilkurara ez-bertaratzea dokumentu bidez ziurtatzen ez badu, eta aurrez interesdunari 10 egun balioduneko entzunaldia eman ondoren, zinegotziak aitortuta duen diru-kopurua jaitsi egingo zaio. Honela, diru-kopurua bertaratutako bilkura bakoitzeko proportzionalki zatituko da, bera partaide den organoek egindako bileren zenbatekoaren arabera.

## **92. artikulua**

Agintaldia bukatu osteko hurrengo bi urteetan, tokiko gobernuaren antolaketaren arabera hainbat arlotan erantzukizun betearazleak izan dituzten udal ordezkariak, 5/2006 Legeak, apirilaren 10ekoak, Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen interes-gatazkak erregulatzen dituenak, 8. artikuluan jarduera pribatuak burutzeko adierazitako mugak aplikatuko zaizkie, beren eskumenaren lurralde-eremuan.

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Erregelamendua, hasierako izaeraz, 2010eko martxoaren 24an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 2010eko martxoaren 25  
Idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Erregelamendu organikoa, behin betiko izaeraz, 2010eko maiatzaren 26aren egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 2010eko maiatzaren 28a  
Idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko, Erregelamendu organikoaren testu osoa 2010eko ekainaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (110 zk.) argitaratu zela, eta 2010eko uztailaren 5ean sartu dela indarrean.

Zarautz, 2010eko uztailaren 5a  
Idazkaria